


# uk

115. zenbakia / 2007 martxoak 12



# korrika

KARRANTZA-IRUÑA 2007 MARTXOAREN 22tik APIRILAREN 1era

# badator!

**æek heldu**  
ELKARLANARI EUSKARARI HERRIARI  
HITZARI LEKUKOARI

## UK galeria > Mikel Eskauriaza



Arte Ederretan lizentziatu zen Mikel Eskauriaza getxoztarra (Bilbo, 1969). Gero New Yorkeko International Center of Photography-n (ICP) ikasketak egin zituen. Bere lana garatzeko makina bat beka ere jaso izan ditu, esaterako, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Metropoli Fundazioarena edota Bilboarterena. Bere lanekin ere sari garrantzitsuak eskuratu ditu Eskauriazak, besteak beste, Generacion 2004 eta Cities Projektua. Taldeka zein berak bakarrik egindako erakusketa ugariaren parte hartu du: Bilboko Arte Ederretako Museoa, Rekalde Aretoa, ICP, Arco... Orain buru belarri dabil beharrean Santanderrekoo Juan Sillio galerian egingo den bere azken erakusketa prestatzen.



«Esperanza, gosari ona eta afari txarra» Euskal esaera zaharra

## Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Zarpantzarrik Berangon, Asier Mentxaka.
- LEHEN ETA ORAIN. Galeako fortea.
- TALAIIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Ander Madariaga.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

### SAKONEAN

- ALBUMA. Izan erakundea.
- ARGAZKIA.
- BERBETAN. Koldo Tellitu, Uhai Brea.
- FOTOGRAFIA. Sestao, Iñaki Izquierdo.

### KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Oskar Fernandezzen zutabea. *Invisibles* dokumentala.
- MUSIKA. Blues kontzertua Algortan. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. Irakurzaleen txokoa. Liburuen erreseinak.
- KIROLAK. Barrika Surf Taldea.

### EUSKARAZ

- ELKARRIZKETA. Iñigo Garitaonandia, Olane Moran.
- AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

### AMAITZEKO

- JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderooren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Cafe a gogo tabernara.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Kakarraldo Errugbi Taldea, 1979. Bittor Egurrola.
- AITORMENAK. Xabier Lapitz, Maitane Nerekan.



30 Koldo Tellitu



11 Amaia Agirre



34 Sestao, Iñaki Izquierdo



11 Ander Madariaga



18 Ana Munariz



54 Xabier Lapitz

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

**ARGITARATZAILIA:** Boluntzarreta Elkarte

**HELBIBIDEA:** Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171  
Tel: 94 491 13 37

**ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru

**ERREDAKZIOA:** Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan

**FOTOGRAFIA:** Asier Mentakia

**TESTUEN ORRAZKETA:** Jon Etxebarria

**KOLABORATZAILIAK:** Unai Brea, Bitlor Egunola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamiruaga, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte.

**MARRAZKILARIAK:** Dogan Gozel, Gorka Vázquez

**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

**KANPO HARREMANAK:** Gorka Orueta

**FILMAZIOA:** Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00

**ISSN:** 1576-6799

© Boluntzarreta

**Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteentzako Topaguneko parteidea da**

ERAKUNDE LAGUNTZAILIAK



# gugeu

## Ezkerraldea

**Gure bulegotik**, burua leihotik apur bat atera ezker (zoritxarrez oraindik ez daukagu itsasorako bistadun erredakziorik), Santurtziko portua ikus daiteke. Hortxe bertan daukagu baina gutako inor ez da sekula santan han egon. Santurtziko portua ezker aldean dago, gure eskualdekin mugan. Ibaizabal (askorentzat, Nerbioi) izeneko ur korronte estu batek baino ez gaitu banatzen. Ibai bat baino ez?


Batetik, arrazoitu dezakegu jeneralean burugogorrek eta mugatuak gaita pertsonak, eta nekez ateratzen gaita gure ohiko txokoetatik, betiko kaleetatik... Izan ere, *ohituradun animalia* bezala definitua izaten da gizakia. Ze jakinmin gutxi gurea! Gurea alperkeria!

Baina bestetik, ezker aldearen kasuan, goiko arrazoia baino zerbait gehiago egon badago. Inguruko euskaldun gehienok -horixe uste dugu behintzat- ezker aldean urrun, oso urrun ikusten dugu. Arrazoiak arrazoi, aurreiritziak aurreiritzi, ezker aldean inguru ez euskalduntzat jotzeko joera daukagu, sarritan ia beste herrialde bat sentitzeraino. Errazago joango gara Astigarragako edozein sagardotegira, Arboledara indabak jatera baino. Pentsa ezazue zergatik.

Guk, ezker aldeko hurbilketa ariketa xumea egin nahian edo, Sestaoko bizitzari buruzko Iñaki Izquierdok egindako argazki ederrak ekarri nahi izan ditugu UK honetara. Goza itzazue. <sup>4</sup>

UK-ko lantaldea

## matematika aplikatua



leihatila > Maddi Albizu

## Agur Maddi!

UKren azken berrogei zenbakietan Maddi zuekin eta nirekin izan da. Zuek hamabostean behin jasotzen zenituzten bere hausnarketa batzuetan zuzen eta argiak, besteetan oker eta nahasgarriak. Zuentzat Maddiren leihatila hau aitaren batean irakurtzeko moduko hausnarketa arina zen. Maddi, berriz, hamabosteroko nire buruhaustea zen. Zer du oraingoan Maddi esateko? galdetzen nion neure buruari hamabostero, aldizkariaren zierrearen atarian, bezperan edo zierrearen azken minutuetan gehientsuenetan. Goizeko kafearekin batera egin ohi dudana egunkariaren irakurketa arinak ematen zidan sarri leihatilarako gaia, besteetan, berriz, kalean ikusitako edo burura etortitako burutzioaren bat izaten zen Maddiren lerroak idaztera bultzatzen ninduen txinparta miragarria. Baina orain Maddi utziko gaitu. “Gaitu” diot, izan ere, nik dakidala behintzat, Maddi Albizu nire irudimenean eta UK aldizkariaren azken berrogei zenbakietan baino existitu ez den pertsonaia delako. Honetan gezurra esan dizuet, gainerako guztian zintzoa izan naiz. Beste barik. Ondo esanak hartu eta txarto esanak barkatu. Agur. <sup>4</sup>



BERRANGO, 2007KO MARTXOAREN 4A

**Folklore** / Nafarroako Zubiera edo Ituren herrietan gaudela ematen badu ere, Uribe Kostan, Berangon hain zuzen ere, ateratako argazkia da honako hau. Martxoaren 4an, kalejira egin zuten Simon Otxandategi dantz taldekoek, Zuberoako Maskaradaren zein Zantantzaren arropak soinean zeuzkatela. <sup>1943</sup>an sortu zen Berangoko dantza taldea eta Euskal Herriko folkloreak aitzindarietako bat dela esan dezakegu. Gaur egun, berriaz, 50 bat pertsonak osatzen dute gure herriko ohiturak mantentzeko ahalegin handia egiten duen taldea. <sup>m</sup> / Argazkia: **Asier Mentakia**

# Eskegi sukaldean UKren barazkien posterra

Zelan eskuratu?  
Zatoz UKren bulegora\*, eskatu eta kitto!

**AZKEN ALEAK!!**

## Ezaugarriak

Neurriak: 40 x 70 cm

Zer dakar posterrak?

Barazki guztien izenak (euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta izen latinez) eta eurak jateko sasoiak.

Argitaratzailea:

UK aldizkaria

Babesleak:

Getxoko Udaleko

Euskara Zerbitzua

BBK

\* bulego ordutegia:

goizez 10:00-14:00 / arratsaldez 15:30-18:00



Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 Algorta GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37



[lehen]



[orain]



**Iraganez doa denbora\* beti / GALEAKO FORTEA 1958-2007**

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

**uribitakora** > usoak langabezian



Arrietara hondartza, 2007

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Handitan izan nahi dut  
uso mezulari,  
amodio gutunen  
"Hermes" hegalaria,  
baina gauzak gaur egun  
ez daude hain argi,  
nola kendu lekua  
telefonoari?

Nik izan nahiko nuke  
bakearen uso  
gerraz husteko mila  
herri eta auzo,  
baina hainbeste putre  
dabil hain eroso  
kasik hobe dudala  
hegorik ez jaso!

Nik lana aurkitu dut,  
INEMa bitarte,  
izugarritzko lana  
kaka baten truke:  
jateko ogi pixkat  
ematen didate...  
Auto-garbitzaileek  
kontratatu naute.

\* Doinua: Euskaldun bat zen itsu

**euskara** > martxoaren 26an zeharkatuko du Korrikak Uribe Kosta



Korrika Uribe Kostan orain dela urte bi. Informazio gehiago: [www.korrika.org](http://www.korrika.org)

## Martxoak 26 Korrika UKn

- Andraka .....06:09
- Lemoiz .....06:22
- Gorliz .....06:35
- Plentzia .....07:13
- Urduliz .....07:26
- Sopela .....07:44
- Berango .....08:22
- Algorta .....08:36
- Erromo .....09:29
- Ibaia .....16:43
- Erandio .....16:50
- Leioa .....17:27
- Erandio Goikoa .....18:26



**Korrika badator!** Izan ere, martxoaren 22an abiatuko da Karrantzatik euskal lasterketaren 15. edizioa, "Heldu" lemapean. Antolatzaileen esanetan, "heldu" hitza goiburuko nagusitzat hartzearen arrazoia bere esanahiaren ugaritasunean datza: iritsi, eutsi, oratu, ondu... Helmuga, bestalde, Iruñean egongo da eta 2.150 kilometro egin ondoren, apirilaren 1ean ailegatuko dira korrikalariak bertara.

Euskal emakumeak omenduko ditu aurtengo Korrikak eta euskararen biziraupenean izan duten garrantzia goraiatu. Hain zuzen ere, urteetako jazerza eta zigorei aurre egiteko agertutako indarra aintzat hartu gura dute ekimenaren antolatzaileek. Hartara, iraganeko, gaur egungo eta etorkizuneko andrazkoak hartuko ditu kontuan omenaldiak; adin eta ideologia guztietakoak, ezezagunak zein ezagunak. Hori dela-eta, ez dute oraingoan aurpegi zehatzik erakutsiko.

Ibilbideari dagokionez, Karrantzan hasiko da; Korrikak inoiz zapaldu ez duen lurralde bizkaitarrean alegia. Urteak ziren bertako lagunek lasterketa handik pasatzeko eskaera egiten ari zirela eta aurtan, pasatu ez ezik, bertan hasiera erabaki dute antolatzaileek. Uribe Kostara, berriz, martxoaren 26an helduko da. m



**BASALBO BASERRIA  
JATETXEA**

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO  
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM

**A L E R G I A**

A S M A  
ERRINITISA  
URTIKARIA  
KONJUNTIBITISA

**MEDIKOSTA**  
IMQ-SANITAS-MAPFRE

ALGORTAKO ETORBIDEA 96  
48991 ALGORTA  
94 460 98 45

**CRISTIAN AMEZAGA**  
MEDIKU ALERGOLOGOA

RFS 100-05

**saiaszgetaria**  
HOTEL

Roke Deuna 25  
280808  
Getaria  
Gipuzkoa

..haria     ...lehengo garaiek...     ...itsasoa

[www.saiaszgetaria.com](http://www.saiaszgetaria.com) / [info@saiaszgetaria.com](mailto:info@saiaszgetaria.com) / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

## euskara > umeak ez direla euskalduntzen salatu dute Uribe Kostan



Eskolak euskalduntzearen alde sinadurak batu zituzten iaz

**Uribe Kostako** ehunka ume ez direla euskaldunduko salatu eta mobilizatzaera deitu dute Uribe Kostako euskalgintza eta irakaskuntzako hainbat taldek: Bizarra Lepoan, Berbots, Berbalamiñe, AEK, LAB, EHE, IA, ALBE, EHBE, Betiko ikastola... Eskolak belaunaldi berriak euskalduntzeko bidea bermatu behar duela ikusita, iaz abian jarritako sinadura kanpainaren berri eman dute taldeek igorritako ohar batean. Orduan 107.768 sinadura batu zituzten Euskal Herrian, horietatik 2.746 gure eskualdean. Ekimenaren bultzatzaileen esanetan, eskolak ume asko euskaldundu barik uzten ditu, datuen arabera, matrikulatutako umeen erdia, hain zuzen ere. Hori dela eta, aurten berriro elkartu dira aurreko urtean batutako sinadurek adierazten zuten herri borondatea aintzat har dadin (jaialdiak antolatu zituzten otsailaren 23an eta martxoaren 10ean, Algortan eta Donostian hurrenez hurren). m

## bertsolaritza > Aitzol Barandiaran ataundarra VI. Abra Sarian garaile



Aurtengo Abra Sariko parte hartzaileak

**Joan** den otsailaren 24an, Abra Sariaren seigarren edizioa egin zuten Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Pena bada ere, Uribe Kostako ordezkari bakarrak, Peru Vidal leioztarrak alegia, ez zuten garaikurra etxera eroatea lortu; bai, ordea, Ataungo Aitzol Barandiaranek. Egun hartan, 75 entzule batu ziren aipatutako bertsolariak entzuteaz gain, honako hauek ere ikusteko: Ander Elortegi (Gernika), Odei Barroso (Urruña), Izar Mendiguren (Laudio) eta Maialen Velarde (Zumaia). Oso lan txukuna burutu zuten Josu Esnaola gai jartzailearen esanetara. Hainbat izan ziren bertsolari gazteek igaro beharreko probak: hiruna bertso zortziko nagusian, beste hainbat zortziko txikian, beste bi lehen puntuari erantzuteko eta bakarkako gaian bi bertso osatzea. Azken horretan bertso ederrak utzi zituzten gazteek. m

[erretatua]



Sei urteaz hasi zen atabala jotzen Ander Madariaga

## Ander Madariaga > atabalaria

**Mungia**koa den arren, 27 urte deroz Anderrek Getxon. Jende asko ezagutzen zuen hona etorri aurretik, baina hala ere, herriko giroan integratzea zail egin zitzaion: “Inork ez eban agurtuten ez egunonik emoten.”. Musikak paper garrantzitsua bete du bere bizitzan txikitatik: “Sei urteaz hasi nintzan atabala jotzen. Bandako mutil batek soldaduzkara joan behar euki eban, eta osabak hilabeteetan ikasi behar nebala esan eustan”. Jaiak jai, txistua eta atabala jotzen ibili da urte luzez bere semearekin batera: “Paellak eta Portu Zaharreako jaiak dira gehien gustatzen zaizkidanak. Herriko ohitura da eta herria batuuu dago”. Familatik datorkio musikarako grina hori: “Aita bere musika izan zan bandan eta musika tartean ibili naz beti”. Bestalde, klarineta eta bateria jotzen ditu: “Komodina naz”. Langilea da oso, baina ez bakarrik musika kontuetan, izan ere, Larramendi ikastolako sortze lanetan ere ibili zen: “Borrokalaria izan naz horretan, lan egiteko beti egon naz prest, baina soilik lagunakaz”. Gaur egun, Itxas Argia eta Bihotz Alai taldekoei laguntzen die eta Berbalagun proiektuan parte hartzen du: “Bide batez neuk ikasten dodaz berba barriak. Ondo datorkit lobakaz batuan berba egin ahal izateko, batua edo nahastua, batek daki”. Duda barik, horrelako gizon ekimentsuek aterako dute euskal kultura aurrera. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

**AIXERROTA BHI**  
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztailan

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / 94 491 17 86

# Kultur programa berria aurkeztuta

Hainbat arrazoi direla eta, **Getxoko kultur etxeko urteko egitarauan aldaketa batzuk iragarri** dituzte eta zenbait ekitaldiren datak eta lekuak ez dira ohikoak izango

**Sasoi honetan, urtero legez, Getxoko kultur etxeak denboraldi berrirako antolatu dituen ekimenen berri ematen du. Ekitaldietako asko errotuta daude dagoeneko egutegi getxoztarrean, baina horien data finkoak urtero zehaztu behar dira. Horien eta aurtengo berrikuntza zein aldaketen gaineko zehaztapenak eman ditu oraintsu Kultur Etxeko presidente Elena Coriak.**

**Ohiko** ekitaldi esanguratsuei buruzko informazioa emateaz gainera, aurtengo programak izango dituen aldaketak izan ditu berbagai Coriak. Izan ere, Getxo Antzokiaren eraiaren (udarako iragarri zuten) zenbait ekimen lekuz aldatzera behartu ditu Kultur Etxeko arduradunak. Berbarako, Udazkeneko Kontzertuak eta Aste Korala Andres Isasi Musika Eskolan antolatuko dituzte aurton, eta Antzerki Jardunaldietarako kaleko jarduerak gehitzea aurreikusitu dute.

Horrez gainera, Erromoko Santa Eugenia plazako lanak amaituta egongo dira eta Blues jaialdia bertara bueltatuko da.

Bestalde, beste arrazoi batzuk direla medio, Kultur Etxekoek beste aldaketa batzuk egingo dituzte, esaterako: Eskulangintza Azoka kalean prestatuko dute lehenengo bidez Areetako Geltoki plazan, eta Getxoarte abenduan egingo da (horrela Komiki Aretarako eta Gexolandiarako ipintzen duten karpak erabili ahaliko dute).

Gainontzekoan, programak urtero legez egingo du bidea. Getxoztar musikazaleen arte-



Getxoko Jazzaldia Euskadiko Jazz Jaialdien Zirkuituaren barruan dago

an sustraitutako jaialdiak dira urteko programazioan dir-dir gehien egingo dutenak (Blues, Jazz, eta Folkarena batez ere, baina ezin aipatu barik utzi Udazkeneko kontzertuak, Aste Korala, Habanera eta Folklore jaialdia). Azoken xarmak ere erakarriko du jende andana (Es-

### «Blues jaialdia Santa Eugenia plazan egingo da, Getxoarte abendurako utzi dute...»

kulangintza, Getxoarte, Erdi Arokoa, San Lorentzo...). Oholtza getxoztarre ere, zelan ez, leku berezia egingo diete antzerkiari eta zinemari (Zine-kluba, Cinema Paradiso, Haur zinea, Gaurik laburrena). Ezin ahaztu getxoztar euskaldunen bihotzetako Euskara Jardunaldi-

ak, ezta beste hamaika ekimen interesgarri ere, Liburu Azoka (Liburutegiaren ekimenez), hizaldia, erakusketak, eta abar. m

## Egutegia

- Haur Zinema Jardunaldiak: Apirilak 10-15
- Liburu Azoka: Apirilak 20-23
- Eskulangintza Azoka: Ekainak 1-3
- Blues jaialdia: Ekainak 8-10
- Jazzaldia: Uztailak 4-8
- Gaurik Laburrena: Uztailak 9-10
- Getxo Folk: Irailak 5-8
- Erdi Aroko azoka: Irailak 21-23
- Antzerki Jardunaldiak: Urriak 11-21
- Komiki Azoka: Azaroak 23-25
- Getxoarte: Azaroak 30-abenduak 2

## Arrazakeria

Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekimen antolatu dute



Haur euskaldunak eta saharauiak elkarrekin dantzan

**Getxoko** Udaleko Kulturarteko eta Immi-grazio sailak III. Aniztasunaren aldeko eta bazterketaren kontrako astea antolatu du martxoaren 21aren inguruan. Izan ere, egun horretan omentzen du nazioartek arrazakeria desagerrarazteko eguna, eta aste osorako egitaraua prestatu dute. Hala, arduradun getxoztarrek azaldu dutenez ekimenaren helburua hurrengoa da: portaera baztertzailak eman ez daitezten, getxoztarrek sensibilizazioa oinarrian pertsona guztiok eskubide berak dauzkagun kulturarteko bizikidetzaren baten beharraz. Hori lortzeko asmoz bi ekitaldi mota antolatu dituzte: zine emanaldiak eta kulturarteko topaketarako lantegiak.

Zineari dagokionez *Hijab* film laburra eta

*Un franco, 14 pesetas* lana emango dituzte (hilak 21, 19:30; Getxo Antzokia) eta ostean berbal- dia egingo dute; *Miradas sin excusa* film laburra eta *Quinceañera* (A.J.B.; hilak 23, 22:00; Getxo Antzokia). Bestalde, lantegien artean hurrengoak daude: Kulturarteko jaia ume- entzat (hilak 24, 17:00; Zabalako eskoletan); *El tren de la memoria* filmaren emanaldia (hilak 19, Nagusien Etxea); *La memoria del emigrante* hitzaldia (hilak 20, Nagusien Etxea); kontzertua eta dantzaldia (hilak 23, Nagusien Etxea). Amaitzeko *Emakume langilea eta bere bizitza Bolivian* argazki erakus- keta egongo da (hilak 19-31, Villamonte) eta horren inguruan bideo-forum bat iraga- rri dute (hilak 20, 18:00; Villamonte). m

### LURPEKO SASTARRONTZI BERRIAK IPINIKO DITUZTE GETXON

Hondakin ez organikoak batzeko lurpeko sastarrontziak ipiniko dituzte oinezkoentzako zonalde batzuetan, Getxon. Halere, ez dituzte udalerriko edukiontzi guztiak aldatuko. Iñaki Zarraok jakinarazi duenez, lurpekoek leku gehiago behar dutelako eta hondakinen batzeak zarata gehiago eragiten duelako. Era berean, oraindik hondakin organikoentzako balioko ez dutela azpimarratu du, sor daitekeen usain txarragatik. Etorrizuz, baina, hodi hidraulikoen sistema ezartzea aurreikusten du Udalak; halere, sistema hori hobetu arte ez dutela ezer erabakiko zehaztu du alkateak.

### BERE ZERBITZUAK EZAGUTZERA EMAN GURA DU GAZTE BULEGOAK

Eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzera emateko kanpainia abian jarri du Getxoko Gazte Bulegoak. Horrez gain, informazio guneak non dauden zehaztu eta antolatzen dituzten ekintzen berri emango du ekimenak. Horretarako, 5.000 esku-orri kaleratuko eta banatuko ditu. Besteak beste, Algortako Tangora Etxean, San Nikolas Ikastolan eta Fadrurako ikasketa gelan egongo dira informazio orriok eskuragarri.

### BIDEGORRIA EGINGO DU UDALAK GALEA ETA AZKORRI ARTEAN

Galean eta Azkorri egingo duten bidegorri berria oinezkoentzako pasealekuren paretik joango da, oinezkoak eta txirindulariak nor bere aldetik ibil daitezten. Azkorriko hondartzara helduko da bidegorria eta Iñaki Zarraoa alkateak azaldu duenez, herritarren aisialdi eta gozamenerako dagoen sarea handituko du. Bestalde, biribilgune edo errotonda bi eraikitze asmoa dauka Udalak: bata, Maidagan eta Santa Marina Haitza kaleen artean; bestea, Dario Regoyoseko bidegurutzetan, Neguriko gasolindegiko atzeko aldean.

## Basurto

Algorta S.L.

altzariak

### LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

**Amaia Agirre** > GEUZko kidea

“Ohituta gaude abokatuarengana jotzera, bitartekaritza beste aukera bat da”



GEUZrekin harremanetan ipintzeko: [www.geuz.es](http://www.geuz.es) edo 94 4051689

Aspalditik Getxon bizi den Amaia Agirrek Gatazkak Eraldatzeko Unibertsitate Zentroan (GEUZ) egiten du lan. GEUZek Hernani, Beasain, Gipuzkoako eta Arabako Aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta abarrekin egin du lan. Euskal Herriko 70 bat ikastetxerekin ere jardun dute. Hamaika master, jardunaldietan parte hartu dute: Argentina, Suitza, Frantzia... Bitartekaritzan dihardute batik bat, eta zertan datzan azaldu du Agirrek.

—Zelan sortu zen GEUZ?

—1999tik daramat honetan. Tesia egiten hasi nintzen Gatazken Ebazpenen programan, han ezagutu nuen gaur egun GEUZ osatzen dugun lantaldea, psikologian eta zuzenbidean lizentziadunak edota gizarte-langileak gara. EHUren barruan sortu ginen eta bertako *spinn off* bat gara, bitarteko bat. Ikusi genuen behar handia zegoela gatazken ebazpenak, komunikazio trebetasuna eta negoziazio prozesuak-eta irakasteko ikastetxeetan, eta hezkuntza alorretik hasi ginen. Gero, prestakuntza emateaz gain interbentzioa ere egiteko eskatu ziguten. Tartean

geure burua bitartekaritzan prestatzen ibili ginen AEBetan, Frantzian, eta bitartekaritza prozesuetan sartu ginen. Orain udaletan bizikidetzat hobetzeko proiektuetan ere bagabiltza, bake kulturaren inguruan.

—Zein motako gatazkekin diharduzue?  
—Eguneroko gatazkekin: auzokoen artekoak, sendi barrukoak (dibortzioak salbu), enpresa munduko gatazkek; ikastetxeetan prestakuntzaz gain klaustroetan adostasunetara iristeko. Talde arteko, talde barruko eta pertsona arteko gatazketan dihardugu.

—Getxoko Udalan baduzue proiektu bat.  
—Bigarren urtea da Getxon Bitartekaritza

eta bake kulturaren inguruan proiektu bat garatzen gabiltzala. Iaz jardunaldi batzuk antolatu ziren, bitartekaritza komunitarioari buruzkoak, eta elkarreentzako prestakuntza saioak egon ziren. Aurten, hiru ekimen ditugu: bakerako 50 ideia batzen dituen gida bat; udaleko langileentzat mintegi batzuk; eta beharren ebaloketa bat egitea, bizikidetzat eta gatazken inguruko beharren azterketa bat, bitartekaritza zentroa zabaltzeko beharra legokeen, ia jendeak badakien zer den hori...  
—Zer da, bada, bitartekaritza?

—Guk bideratu, laguntza eskaintzen dugu, baina ahalegintzen gara beraiek izatea negoziatzen dutenak. Gatazkek konpontzeko

**«Bitartekaritza prozesua da, aldeak konponbidera iristen dira 3. baten laguntzaz»**

bide asko erabil ditzakegu, horietako bat da bitartekaritza. Bitartekaritza prozesu bat da, non gatazkan dauden bi aldeak konponbide batera iristen diren hirugarren partaide neutral baten laguntzarekin. Bitartekariak prozesua kontrolatuko du baina ez edukia; aldeak iritsiko dira konponbidera eta beraiena, pribatua, eta konfidentziala izango da. Hori da desberdintasuna. Bitartekariak ez du inoiz esango zein den konponbidea. Kontua da ohituta gaudela gatazka potoloa daukaguneko abokatuarengana jotzera. Abokatuak gehienetan eskatzen digu beste aldearen aurka joatea. Hor etekin bat ateratzen dute, baina jendea ez da pozik geratzen, ez delako konponketarik egoten. Esperientziaz diote, bakoitzak bere arazoari buruz erabakitzen duenean eta akordio batera iristen parte hartu duenean, akordioa betetzeko aukera gehiago daudela. Gero bizikidetzat ez da egun bakar batean egiten, behin eta berriro landu behar den gauza bat izaten da. m

### Opera euskaraz Getxo Antzokian Mozarten lan bat egokitu du Belatrixek



Kolas mago handia operaren antzezpen bat. Informazio gehiago: [www.belatrix.bravehost.com](http://www.belatrix.bravehost.com)

**Belatrix** Opera lantegia Andoni Martinez tenore getxoztarrak, Miguel N´Dong piano jotzaileak eta Ana Isabel Salomon sopranoak sortu zuten orain dela 7 urte inguru. Opera umeen artean hedatzeko edota txikienei hurbiltzeko helburuagaz jaio zen Belatrix. Horretarako operak haurrentzat egokitzen dituzte lehenengo eta prozesu horretan erabiltzen duten tresnatako bat ipuin-kontalari baten azalpenak dira, eta operak kontatzen duen istorioa ere sinplifikatu egiten dute.

Kolas mago handia lana taularatu dute hilaren 18an (18:00) Getxo Antzokian (sarrera: 3,5 euro), W.A. Mozarten *Bastian*

eta *Bastiana* operan oinarritutako ikuskizuna. Ekitaldi bakarrean antzestu eta abestuko dute, oraingoan osorik euskaraz. Hala ere, ez da Belatrixek lan hau eskaintzen duen estreinako aldia, ia azaroan Basaurin aurkeztu zutelako. Bestalde, ez da Belatrixeko kideak Getxo Antzokiko oholtzara igoko diren lehenengo aldia. *Hansel eta Gretel* lanaren euskarazko bertsioa eskaini zuten-eta orain dela 2 urte. Ostera, orduan ipuin-kontalariak bakarrik egiten zuten euskaraz, kantariek gaztelez abesten zutelako. Beraz, oraingoan erronkari eutsi eta lana osorik euskaraz eskainiko dute. Zorionak! m

### GETXOKO BILGUNE FEMINISTAREN JAIA

Hilaren 1ean Getxoko Bilgune Feministaren ekimenez Euskal Emakumeon Eskubideen Kartaren edukia ezagutarazi ziren Getxon. Halere, oraindik Euskal Herriko emakume eta eragileek aukera daukate gutunari euren ekarpenak egiteko. Martxoaren 8a ere joan da eta hamaika aldarrikapen ekitaldi egin ziren han eta hemen. Halaber, Getxoko Bilgune Feministak jaialdia prestatu du hilaren 16rako Txorimalo Gaztetxean (19:00), eta “ekitaldi xumea eta kontzertuak” egongo direla iragarri dute.

Harremanetarako: [ehbfgetxo@euskalerrria.org](mailto:ehbfgetxo@euskalerrria.org)

### RUAILLE-BUAILLE TALDEAREN KONTZERTUA SAN PATRIZIO EGUNEAN

Irlandaren eguna ospatzen da martxoaren 17an. Horren albotik, Saint Patrick’s Day ospatzeko musika zeltikoko emanaldia prestatu dute Algortako The Piper’s Irish Puben hilaren 16an (22:00). Ruaille-Buaille taldeak (izenak gaelikoz iskanbila edo zalaparta esan gura du) eskainiko du kontzertua eta berezkoak dituen doinu irlandar alaiak gozatzeko aukera itzela izango da.

### ONDARRETA ABESBATZAK 40 URTE BETE DITU

Areetan sortu zen Ondarreta abesbatza 1967an. Iragan hilean aurkeztu zuen aurtengo egutegia eta bertan agertzen denez Euskal Herrian zehar 17 kontzertu eskainiko dituzte. Horrez gainera, ekainaren 22-27 bitartean Erdialdeko Europatik bira bat antolatu dute. Zorionak!

Bilatu zure Renault "Km.0" Bilbo Berri Getxo-ren web berria

**www.seminuevosongetxo.com**

**BILBO BERRI**  
Bizkerre, s/n - ALCORTA. Tel. 94 430 68 81



Igor Bilbao > Auzotarrok kultur elkarteko presidentea

## “Ideia berriak dauzkan jendea erakartzea da gure etorkizuneko **erronka**”

Leioako San Bartolome auzoko bizilagunen kultur elkartea da Auzotarrok. Gaur egun, inguruko 220 bat familiak osatzen dute auzoko eskola zaharretan batzen den taldea. Laster, ordea, lokalak zaharberituko dizkie Udalak eta bertako biztanleek euren egitasmoak aurrera eramateko azpiegitura dotore baino dotoreagoak edukiko dituzte. Igor Bilbao elkarteko presidentek proiektu horren zein beste batzuen berri eman digu.



Argazkian, Igor Bilbao

—Zelan sortu zen elkartea?

—2002ko otsailean sortu genuen. Aurretik bazegoen beste elkarte kultural bat, baina arazo batzuegatik desagertu egin zen. Beraz, auzoko elkarteei zein koadrilei deitu zigun Udalak eta batzuen artean Auzotarrok taldea osatu genuen.

—Zeintzuk dira elkartearen helburu nagusiak?

—Hasiara batean, aurreko elkarteak burututako lanari jarraipena ematea zen eta kultur aretoa geneukanez, hainbat auzotako bizilagunentzat batzeko leku bat sortzea zen gure asmoa. Leioa oso handia da eta auzoak oso sakabanaturik daude. Artatzatik Sarrienera doan eremua da

gurea. Gaur egun, proiektu berriak gauzatzen saiatzen gara eta areto berria egiten digutenean ekintza gehiago antolatu gura dugu.

—Ze motatako ekintzak antolatzen dituzue?

—Asteazkenak: dantzak, aerobic, tai-chi, yoga, soinketa, margo-tailerra... Asteburuetan ere jar-

duera gehiago dauzkagu: umeentzako zinea, txangoak... Gainera, jai garrantzitsu batzuk ere antolatzen ditugu: maiatzeko lehenbiziko asteburuan bertan egiten den blues jaialdia, sanjuanak, aratusteak, olentzero... Helduei ere zenbait ekintza eskaintzen dizkiegu: erakusketak, ardo dastatzeak, etab. Umeentzako, berriz, udalekuak antolatzen ditugu uztailean eta etorkizun-

### «Jendea orokorrean oso gutxi inplikatzeko da»

nean ume txikientzako aisialdi talde bat martxan jartzea gustatuko litzaiguke, adin guztiarako jendea dago eta.

—Zelakoa izango da kultur areto berria?

—Udalagaz etnabako kontaktuan gaude eta proiektuari egindako edozein aldaketaren jakinaren gainean jartzen gaitu. Areto berria askoz ere handiagoa izango da, aldagelak eta musika taldeek entseatzeko txoko berezi batez; soinu ekipamendu berria... Horrez gain, bazkideentzako txoko bat egitea eskatu diegu udal arduradunei, baina hori oraindik ez dago oso ondo zehaztuta.

—Zuen etorkizuneko erronkak?

—Ideia berriak dauzkan jendea gure artera erakartzea. Bost urte egingo ditugu daborduko eta ekimen berrien falta sumatzen dugu. Ahalik eta jende gehienarengana heldu gura dugu, baina pertsona gutxi inplikatzeko da. m

## Pop-rock lehiaketa

123 taldek hartuko dute parte martxoaren 23an hasiko den musika txapelketan



Izena eman duten taldeetatik 10 Leioakoak dira. Argazkian, Sopolako Nun taldea.

123 musika taldek eman dute izena martxoaren 23an, Leioan, hasiko den VII. Pop-Rock lehiaketan parte hartzeko. Parte-hartzaileek gutxienez bost abestiz osatutako CDa aurkeztu behar izan dute horretarako. Txapelketaren lehenbiziko fasean, musika estilo bakoitzeko (rock eta metala) hiru onenak zeintzuk diren erabakiko du epaimahaiak. Ondoren, maiatzaren 11n eta 12an, Aldapako Auditoriumen egingo den finalera pasatuko dira.

Modalitate bakoitzeko garaileek 1.800 euro eskuratzetik gain, CD bat grabatzeko aukera izango dute. Gainera, 600 euroko sari berezia eskainiko du Euskara

Zerbitzuak eta Leioako talde onena ere sarituko dute. Aterpe Gazte Bulegoak, bere aldetik, jaietan talde ospetsu baten aurretik jotzeko aukera eskainiko du.

Txapelketara aurkeztu diren taldeak munduko hainbat lekutatik datoz: Euskal Herria, Espainia, Argentina, Mexiko...

Bestalde, joan den urteko irabazleek kontzertua eskainiko dute martxoaren 17an, 20:30ean, Kultur Leioako Auditoriumen. Zehazki, honakoak dira emanaldian parte hartuko duten taldeak: Sopolako Nun taldea, Leioako Konter, Bilboko Reok eta Whitewood. Egun berean, grabatutako CDa aurkeztu eta salgai jarriko dute. m

### DAMIAN MUÑOZEN KONPAINIAREN DANTZA IKUSKIZUNA

Martxoaren 15ean, eguena, Staff emanaldia eskainiko du Damian Muñozen konpainiak. Taldearen X. urteurrena betetzen da aurretik eta dantzatzeko duten piezaren bitartez ikusleek taldearen ohituren muina, hau da, beraien arteko harremana zein dantza ulertzeko daukaten modua ezagutzeko gura dute dantzariak. 20:00etan hasiko da ikuskizuna Kultur Leioako Auditoriumen eta sarrera 6 eurokoa izango da.

### PATA NEGRA TALDEAREN KONTZERTUA AUDITORIUMEN

Flamenkoa eta rocka uztartzen dituen talderik garrantzitsuenetakoa den Pata Negra kontzertua eskainiko du martxoaren 16an, barikua, Auditoriumen. Emanaldia 20:30an hasi eta sarrera 15 eurokoa izango da. Blues eta flamenkoaren mundu mestizoa ekarriko du Leioara Sevillano gitarra jotzaile mitikoa lagun dutela.

### MARTXOAN JARDUERA UGARI ESKAINIKO DU ERABILTOKIAK

Martxorako makina bat ikastaro eta ekintza antolatu ditu Leioako Erabiltokiak. Hilaren 2tik 16ra arte, esaterako, artisautza eta abalorioak egiten ikasteko aukera egongo da (12 euro); 17tik 23ra, berriz, Funky ikastaroa (7 euro) eskainiko dute eta gura duenak jendaurrean berba egiteko teknikak ikasi ahal izango dituzte martxoaren 13tik 27ra arte egingo den ikastaroan (12 euro).

# Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Elkartea



Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa  
Tel: 94 633 81 59

udondo  
taberna  
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

## ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK  
egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

## [erandio]

Ana Munarriz > Iparrize txistulari taldeko kidea

“Astrabuduko **kaleak animatu** gura ditugu eta bizilagunei zeozer ezberdina eskaini”

Ana Munarriz txistulari erandioztarrak ez du gogorzen Astrabuduko Iparrize taldea noiz sortu zen. Berak 22 urte daramatza txistua jotzen eta bederatzi urte besterik ez zeukala hasi zenean urte dexente zeramatzan taldeak martxan. Laster, martxoaren 24an, alardea egingo dute auzoko kaleetatik gonbidatutako Bizkaiko hainbat taldegaz batera.



Ana Munarrizek 22 urte daramatza txistua jotzen

—Gatxa al da txistua jotzea?

—Nik ez dut uste gatxa denik. Baina egia esan behar badizut, ez dut oso ondo gogoratzen; bederatzi urtegeaz hasi nintzen-eta ikasten. Taldean gauden gehienek ez dakigu solfeorik, baina dakitenek notak zeintzuk diren esaten digute. Denboragaz ikasten zoaz.

—Emanaldi ugari eskaintzen dituzue?

—Gabonetako kalejira, esaterako, beti egiten dugu. Orduan, dantza taldeagaz elkartzen gara. Jaunartzeetako umeakaz ere Astrabudutik buelta bat ematen dugu. Joan den urtean, esaterako, Sestaon jo genuen, alarde batean eta esperientzia oso polita izan zenez, aurten gurea antolatzea erabaki dugu. Deitzen gaituzten lekuetara joaten gara. Iaz, adibidez, taldekide batzuk Segovian egon ziren, Athleticeko peñek urtero antolatzen

duten jaietan.

—Txistua jotzeko tradizioa mantentzen dela uste duzu?

—Bai. Alardeetan zenbat talde batzen diren ikustean konturatzen zara. Gure kasuan, gainera, gauza berriak ikasten saiatzen gara, bilduma berriztu, kalejiretan nabari dadin.

—Berba egiguzu antolatzen zabilzaten alardearen gainean.

—Arestian esan bezala, Sestaon egindakoa asko gustatu zitzaigun, beraz, guk beste bat egitea erabaki dugu. Udalak ematen digun diru-laguntza musika tresnak konpontzeko

edo arropak erosteko erabiltzen dugu normalean, baina oraingoan bestelako erabilera eman gura izan diogu eta txistularien jaia antolatu. Zeozer ezberdina eskaini gura diegu auzokoei eta, bide batez, Astrabuduko kaleak animatu. Horretarako, lehenengo eta behin, talde bakoitza bere kabuz ibiliko da auzoan zehar, ondoren, kalejira eta kontzertua eskainiko dugu denok batera. Amaitzeko, parte hartu duten talde guztiak jatera gonbidatuko ditugu. Ondo irteten bada, behin baino gehiagotan egitea gustatuko litzaziguke. m

## Gazte Plana

Besteak beste, **euskara eta parte hartzea** sustatu gura du egitasmo berriak



Gazteek etxebizitza erosteko dituzten zailtasunei ere aurre egin gura die plan berriak

**Udalerriko** gazteen arazoei irtenbidea bilatzea da Udalak martxan jarri duen Gazte Planaren helburu nagusia. Hartara, etxebizitza, langabezia, ikasketak, hizkuntza eta bestelako gaien inguruan jardungo du egitasmoak. Erandioko alderdi guztiek aho batez onartu dute neurria horri buruz eztabaidatzeko egindako udalbatzan.

Gauza askoren artean, euskaraz abesten duten zein udalerrikoak diren musika taldeen kontzertuak sustatu gura ditu plan berriak. Horretarako, herriko gazteek zuzenean parte hartzea lortzen saiatuko dira udal ordezkariak. Horrez gain, udal teknikarien eta Erandioko elkarten arteko

harremanak bultzatuko dituzte.

Proiektu horri baiezkua emateagaz batera, etxebizitza gehiago eraiki eta gazteei zuzendutako alokairu sozialeko eskaintza publikoa indartuko duela agindu du Udalak. Gainera, eraikitako zonaldeetan aisialdirako guneak (saskibaloiz zein futbol zelai berriak...) jartzea aurreikusten du planak. Altagako azokari ere indar handiagoa eman gura zaio eta kultur zentro garrantzitsu bihurtu.

Hezkuntza arloari dagokionez, Udal Eskola Kontseilua sortu gura du ekimenak, eskola-porrota ekiditeko asmoz. Horretarako, batzarrak egingo ditu ikastetxe, gurasoen elkarte eta Udalagaz. m

### 300 EUROKO ISUNA AUTOA KALEAN ABANDONATZEAGATIK

Autoak kalean abandona ez ditzaten kanpaina abian jarri zuen joan den martxoaren 1ean Erandioko Udaltzaingoa. Identifikatzen diren lege urratzaile guztiek 300 euroko isuna jasotzea izan da onartutako lehenbiziko neurria; izan ere, abandonaturiko autoen jabe gehienak ez dira Erandion bizi. Hain zuzen ere, iaz identifikatutako 141 ibilgailuetatik 61 beste udalerriri batzuetakoak ziren. Ibilgailu gehienak herriaren kanpokaldean utzi zituzten.

### 2007AN AMAITUKO DITUZTE ERANDIOKO ERRIBERAKO LANAK

Orain dela gutxi hasi dituzte Altagako erribera konpontzeko lanak eta 10 hilean amaitzea aurreikusten dute udal ordezkariak; beraz, urtea amaitu baino lehen inauguratzea espero dute. Lanen ondorioz, debekaturik dago autoak kaian aparkatzea. Behin lanak amaituta, aldaketak nabariak izango dira; pasealekua, lorategiak, bidegorria eta begiratokiak eraikiko dituzte eta. Bestalde, proiektuaren aurrekontua 1.800.000 eurokoa da eta erdia Udalak ordainduko du; gainerakoa Bilboko Ur Patzuergoak, Portuak eta Navacel enpresak ordainduko dute.

### LUTXANAN IGOGAILUAK JARTZEA PENTSATZEN ARI DA METRO BILBAO

Mikel Arieta-Araunabeña alkateak jakinarazi duenez, eta Udalak berak egindako eskariari erantzunez, Lutxanako geltokian igogailuak jartzea pentsatzen ari da Metro Bilbao. Hain zuzen ere, metroko arduradunak zenbait aukera aintzat hartuko dituztela nabarmendu du alkateak. Mugikortasun arazoak dauzkaten pertsonen geltokiko arrapaletatik igarotzeak eragiten dizkien arazoak nabarmenak direla azpimarratu du.

moda gaztea opariak

**IRATI**

Torrere 2, ALGORTA  
T. : 94 491 12 71

**Basolanak**

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

**LUBERRI**  
Basolanak S.L.

Lorategien zainketa  
**DEITU!**

T. 94 467 17 13  
F. 94 467 42 41  
ERANDIO (Bizkaia)  
Mobila  
Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak  
Eskailera igogailuak  
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

[www.arlan.biz](http://www.arlan.biz)

## IAT (ITV) PASATZEKO AZPIEGITURA BERRIA EDUKIKO DU SOPELAK

Ibilgailuen azterketa teknika (IAT-ITV) burutzeko azpiegitura berria edukiko du Sopelak 2008tik aurrera. Lehendabizi, baina, azpiegiturak jartzeko lurra erosi beharko ditu Eusko Jauriaritzak eta horretan atzeratuta dabiltzala jakinarazi dute gobernu ordezkariak. Sopelakoagaz batera, Zallan, Zumaian eta Olaberrian ere instalazio berriak ireki gura dituzte. Horrela, gaur egun EAEn indarrean dauden zortzi tailerrei gehituko zaizkie.

## ARRIETARAKO ERAISTE LANEK 359.676 EUROKO AURREKONTUA DAUKATE

Arrietara hondartzako eraiste lanek 359.676 aurrekontua edukiko dute. Hondartzako tabernak eta eraikinak botatzeko behar izango duten debora, berriz, lau hilabetekoa izango da. Arrietararik Aitzgorri mendira (Gipuzkoan) doan balio geologiko zein ekologiko handiko beta gorria berreskuratzea ahalbidetuko du Ingurugiro Ministeritzak martxan jarritako proiektuak.

## UGERAGA TXIRRINDULARI ELKARTEAK TALDE BERRIA AURKEZTU DU

Joan den martxoaren 1ean talde berria aurkeztu zuen Sopelako Ugeraga Txirrindulari Elkarteak. Besteak beste, Marino Lejarreta, Julian Gorospe eta Roberto Laiseka egon ziren aurkezpen ekitaldian. Taldeak fitxaketa berri ugari edukiko ditu aurtan eta Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako, Errioxako zein Kantabriako txirrindulariek osatuko dute: David Larriba, Ander Nafarrete, Denis de Dios, Unai Marín, Julen Ramos, Ivan Gil, Iker Mejuto, Jon Rodriguez, Adrian Garcia, Gonzalo Estrada... Beraz, aurtan emaitza onak lortuko dituztelakoan dago Emilio Ramos Ugeragako arduraduna.

## Euskara jatorra

**Esaera Zaharren Txapelketa** antolatu du martxoaren 17rako Nikola AEK euskaltegiak



Euskal esaera zahar jatorrak ezagutzera eman gura ditu txapelketak

**Urtero legez**, Esaera Zaharren Txapelketa antolatuko du Sopelako Nikola AEK euskaltegiak. Martxoaren 17an, zapatua, izango da hitzordua. Izena emateko azken eguna, berriz, martxoaren 12an izango da eta taldearen izena, telefonoa zein helbide elektronikoa eman beharko dira (era berean 8 euro ordaindu). Partaideek 16 urte baino gehiago eduki behar dute.

Txapelketaren hamalaugarren edizioa izango da aurtengoa, Sopelan egiten den hamahirugarrena; izan ere, lehenbizikoa Algortako Lauaxeta AEK euskaltegiak antolatu zuen. Hain zuzen ere, hasiera batean lehia-

keta bi euskaltegiatako ikasleen arteko lehia adiskidetsua baino ez zen. Baina eduki zuen arrakasta ikusita, gaur egun ezagutzen dugun txapelketa sortzea erabaki zuten.

Hainbat dira egitasmoaren bidez erdietsi gura diren helburuak: ikasleek euskara erabiltzeko aukera edukitzea, Sopelako tabernetan eta kaleetan euskal giroa sustatzea, euskararen kalitatea babestea, euskal esaera zaharrik ezagutzera ematea eta horien erabilera bultzatzea. Euskal Herri osoan batutako esamoldeak erabiliko dituzte norgehiagokan, beraz, euskal lurralde guztietako euskara ezagutzeko aukera aparta edukiko dugu. m

**Maitane Ozaita** > *Maite-maitea...* lehiaketako irabazlea

“Oso harrituta geratu nintzen nire izena irabazleen artean entzun nuenean”



Euskarazko zein gaztelaniako idazlanak aurkeztu zituen Maitanek lehiaketara

**Sopelako** institutuko 4. DBH ikasten du Maitane Ozaita aurtengo “Maite, maitea...” lehiaketako irabazlea. Hain zuzen ere, Udalak antolatutako hirugarren edizioako Gazte Kategorian (12 urtetik 16 urtera) garaile aukeratu dute euskaraz idatzitako amodiozko eskutitz bitxi batez. “Botila biren arteko amodio istorioa da; bata plastikozkoa eta bestea kristalezkoa. Maitemindu egiten dina dendan, baina, egun batean erosi egiten dituzte eta banatu egiten dina. Halere, sastarrontzina botatzerakoan berriro egingo dute topo, ez dituzte-eta birziklatuko. Plastikozko botilak idazten du eskutitza”, azaldu du Maitanek. Orijinala ezta?

Halere, oso lehiaketa zalea ez dela onartu du Sopelako gazteak. “Euskara irakasleak oinarriak ekarri eta klaserako lana zela esan zigun. Gero berak aurkeztu zituen gure idazlanak. Jende nahikoa aurkeztu zen lehiaketara, gure institututik gela oso bi”. Ez zuen, hortaz, irabaziko zuenik pentsatu. “Mota horretako txapelketa batera aurkezten nintzen le-

henbiziko aldia zen, ezustea izan zen irabaztea. Oso harrituta geratu nintzen nire izena entzun nuenean...”. Beraz, etorkizunean baliteke beste lehiaketa baten batera aurkeztea, “baina oraindik ez dakit”.

Idaztea gogoko duen arren, askotan ez duela egiten onartu du 15 urteko ikasleak. “Ez dut uste etorkizunean idazteagaz zerikusirik daukan ezer ikasiko dudarik”.

**«Ez dut uste idazteagaz zerikusirik daukan ezer ikasiko dudarik»**

sirik daukan ezer egingo dudarik, zientziagaz lotura daukan zeezer ikasi gura dut-eta; biologia esaterako...”.

Bestalde, parte hartu gura zuenak nahi beste eskutitz bidaltzeko aukera zuen eta Maitanek gaztelaniaz ere bota zuen bat, baina kategoria horretan ez zuen zorterik izan.

Joan den otsailaren 14an, San Valentín egunean, egin zuten sari banaketa Sopelako Udaletxean. Maitane bertan egon zen eta larrosa eta MP3 bat eskuratu zituen. m

## DIDAK HAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

## 4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA  
Tfnoa.: 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

**LAIKAK Taberna**

Bentatxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94 676 03 28

## Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78  
T.: 94 491 27 34

**UR TANTA BAT BERA ERE EZ DUGU SOBERA**

Berangoko Udalak, uraren neurrigabeko erabilerari buruzko kontzientziario kanpaina jarri du martxan. *Ur tanta bat bera ere ez dugu sobera* lelopean, alkatearen eskutitz bat bidaliko da herriko helbide guztietara. Horretan, ura neurririk gabe erabiltzeak ekar ditzakeen arazoak azalduko dira. Horrez gain, etxean ura aurreztu nahi badugu hartu behar ditugun neurriak azaltzeko, esku-orriak banatu eta informazio panelak ipiniko dituzte udalerrian. Horrekin guztiarekin batera, udaletxeak 1500 kit jarriko ditu eskuragarri. Dagoeneko, ekomurriztaileak instalatu dira kultur etxeetan eta beste udal instalazio batzuetan.

**DOBARAN EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ARDURADUNA**

Berangoko alkate Miren Dobaran, Eusko Jaurlaritzako Kultur Saileko Euskararen Sustapenerako buru izendatu berri dute. Gaur egun, Euskal Udalen Elkarteko (EUDEL) euskara eta berdintasun arduraduna da. Legegintzaldi hau amaitu arte, beraz betebeharrak guztiak uztartu beharko ditu. Oso gustura dago Berangoko alkatea izendapen berriarekin, izan ere, bere ikasketekin bat datorren lanpostua da Eusko Jaurlaritzak eskaini diona.

**ERABERRITZE LANAK KALE ETA ERAIKINETAN**

Berangoko Udalak hainbat eraberritze eta egokitzapen lan eramango ditu aurrera datozen asteetan. Horien artean, Udaletxearen egokitzapen lanak eta Sabino Arana kaleko lur azpiko pasabidearen ezabatze lanak dira garrantzitsuenak. Bigarren horren ordez, beste zeharbidetako da, herritarrek kalea gurutzatzeko erabil dezaten. Miren Dobaran alkateak adierazi duenez, berdintasunerako egitasmoaren baitan aintzat hartutako asmoa da hau, era horretako pasabideak arriskutsuak dira eta emakumeentzat.

**Krakoviarako bidaiak**

Jaialdi batean parte hartuko dute berangoztarrek



Poloniako Krakovia hiria

**Simon Otxandategi** dantza taldeak Krakoviako folklore jaialdian parte hartuko du aurtengo udan. Hori aitzakiatzat hartuta, bidaiak berezia antolatu du Berangoko Udalak. Uztailaren 28tik abuztuaren 2ra bitartean, Poloniako toki garrantzitsuenak ezagutzeko aukera izango dute izena ematen dutenek.

Gaur egun, Krakovia, turismo gune garrantzitsua da nazioarte mailan eta bi milioi bisitari baino gehiago jasotzen ditu urtero. Arkitektura eta arteari dagokionez, erreferente bihurtu da Europan. UNESCOk gune babestu izendatu du hiriko alde zaharra. Berangoko Udalak antolatu-

riko bidaiaren barnean, hori guztia ezagutzearaz gain, hegoaldeko zonaldea eta mendialdea ezagutzeko irteerak egingo dira. Horietan, gidari profesionalen laguntza izango dute partehartzaileek nahi izanez gero. Taldea zuzeneko Charter hegaldi berezi batean joango da. Apirilaren 30era arte izena emateko aukera egongo da Berangoko kultur etxeetan eta herrian erroldaturiko pertsonen lehenasuna izango dute. Hala ere, hau guztiaren zein beste datu askoren berri emateko, bilera informatiboa egingo da martxoaren 16an, arratsaldeko 7:30etan, Berangoeta kultur etxean. m

**Jone Gurrutxaga** > Gorlizko kultur etxeko zuzendaria

“Burututako kudeaketagatik **ISO 9000-2000** ziurtagiria eskuratu du **Kultur Etxeak**”



ISO 14000 lortzeko lanean dabilza momentu honetan Kultur Etxeko beharginak

**Otsailaren 9an**, ISO 9000-2000 ziurtagiria jaso zuen Gorlizko kultur etxeak Martxaren 9an. Baina zer adierazten dute zenbaki horiek? *“Kudeatze sistema baten kalitatea bermatzen duen diploma da ISO 9000-2000. Orain arte enpresa pribatuei gehiago ematen zitzaien, baina daborduko zerbitzu enpresei zein administrazioei ematen hasi dira, tartean gureari”*, azaldu du Jone Gurrutxaga kultur etxe zuzendaria.

Gorlizko kultur etxeak ekintzak, jaiak, liburutegia... kudeatzen ditu, udalerrian ematen diren kultur jarduerak guztiak alegia. *“ISO 9000-2000 nazioarte mailan ematen den kalitate araua da. Guk araudi horren arabera bete dugu gure eguneroko lana. Ondoren, auditoritza pasatu eta gaitu dugu”*. Hain zuzen ere, horixe bera da lortutako diplomak egiaztatzen duena, hau da, ekintzak antolatzerako orduan zein liburutegia aurrera eramaterakoan araudiak gomendatzen duena bete dutela

kultur etxe beharginak.

Gorlizaren ekintzak antolatzea eta kultura zabaltzea dira kultur etxearen helburu nagusiak; *“batez ere, euskal kultura bultzatzea”*. Laster 16 urte beteko ditu eta lehenbiziko egunetik herriko kulturaren alde behar handia egin dutela nabarmendu du zuzendaria. *“Kalitatearen alde lan*

**«Orain ingurugiroari dagokion ISO 14000 lortzeko lanean ari gara»**

*egiten hasi zenean aholkularitza bati laguntza eskatu zion Udalak. Horrek arlo guztien artean gurea aukeratu zuen eta ohore handia izan zen guretzat, kalitatezko zerbitzua eskaintzen dugula frogatzen zuen-eta”*. Etorrizuneko erronkak? *“Ingurugiroari dagokion ISO 14000 lortzeko lanean ari gara, bulegoaren kontsumoa kontrolatzen eta horri lotutako ekintzak antolatzen”*. m



**TXIBERRI edantokia frontoi partikularra**

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15



**Ajuria taberna**

Andrés Cortina 2  
**ALGORTA**



**VIEJO**

*kopak eta giro jatorra*

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
**ALGORTA**

**cianoplan Reprografía**  
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Ariguo Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
http://www.cianoplan.es

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Karteak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiatu kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
- ermarkaketak •



## LEMOIZKO ZENTRALAREN LURREN ERABILERA

Hainbat urtez erabili gabe egon ondoren, Lemoizko zentral nuklearraren lurra lehiaketa publikora ateratzeko oinarriak prestatzen ari da Eusko Jauriaritza. Maiatzetik edo ekainetik aurrera, euren eskaintzak egiteko aukera izango dute enpresa interesadunek. Hala ere, lberdrolak lehentasuna dauka eta egiten den eskaintzarik onena berdintzeko aukera izango du. Bi aspektu baloratuko dira lehiaketan: enpresek aurkezten duten proiektua eta enkantean eskaintzen duten diru kopurua. Irabazle ateratzen denak, zonaldea onera ekartzea kontuan izan beharko du. 1994an behin betiko gelditu zuten Lemoizko zentral nuklearra eraikitzeko proiektua. Osagai eta ekipamendu guztiak saldu dira dagoeneko eta eraikinak eta oinarriko azpiegiturak dira gelditzen diren bakarrak.

## URESARANSEKO KIROLDEGIA HANDITUKO DUTE 2008AN

Datorren urtean hasiko dira Gorlizko Uresaranse auzoko kiroldegia handitzeko lanak. Erabilera anitzeko aretoak, gimnasioa, padel pista eta eskubaloi eta saskibaloizelaiak eraikiko dituzte, besteak beste. Horrez gain, igerileku berria eraikiko dute, hau zent eta herritarrek gehien eskatzen zuten zerbitzua. Umeentzako zein nagusientzako ikastaroak eskainiko dira bertan, nahiz eta, herritar guztiek erabiltzeko aukera izango duten. Kirol-instalazio guztiak, ezintasun fisikoak dituztenentzat egokituta egongo dira.

## PLENTZIA

### Ingurugiroaren azterketarako institutua 2008rako



Leku pribilegiatuan dago Plentziakoerietxea

**Hondartza ondoko erietxean** instalatuko dute *Ekobioteke*, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) kudeatuko duen itsas biologia eta bioteknologia institutua. Jonan Marigomez biologia zelularrean katedraduna izango da bertan egingo den lanaren arduraduna eta EHUKo beste irakasle batzuen laguntza izango du.

*Plentziako itsas-behatokia*, horrela deituko da-eta, hiru departamendutan banatuko dute: hezkuntzari dagokiona; ikerkuntza saila; eta akuarioen sistema esperimentalak.

Hirugarren hau, itsasoaren kutsadura eta uren kalitatea aztertzeko erabiliko da batez ere. Hala ere, behatokiaren helburu nagusiak, ingurugiroa ebaluatzeko metodo berriak bilatzea eta unibertsitateko laborategiak libratzea izango dira.

Oraindik ez da zentroaren inauguraziorako data zehatzik eman, baina 2008-2009 ikasturterako martxan egongo dela espero dute bultzatzaileek. Unibertsitateko irakasleez gain, bekadunak eta Madriletik etorritako profesionalak ere egongo dira. m

# Martxoak 12-26

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### GETXO

► **M.A. Antolin argazkiak eta eskulturak.** Algortako erakustaretoa. Martxoaren 19tik 31ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.  
► **Eiisabet Varonaren lanak.** Erromoko erakustaretoa. Martxoaren 19tik apirilaren 4ra arte. 11:00-13:00 eta 18:00-21:00.

### LEIOA

► **Punto Rojo kolektiboa.** erakusketa aretoa. Martxoaren 25era arte. 10:00-20:00.

### PLENTZIA

► **Argazkiak: Magdalenako Andra Mariren altxorak.** Goñi Portal. Martxoaren 14ra arte. 11:00-13:00 eta 16:30-21:00.

## ZINEMA

### GETXO

► **Oliver Twist.** Getxo Antzokia. Martxoak 14, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.  
► **Hard Candy.** Azpitteludun jatorrizko bertsioa. Getxo Antzokia. Martxoak 16, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.

### LEIOA

► **Carta de amor.** Auditorium. Martxoak 13, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.  
► **Tres extremos.** Azpitteludun jatorrizko bertsioa. Auditorium. Martxoak 20, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

### PLENTZIA

► **La educación de las hadas.** Helduentzako zinea. Goñi Portal. Martxoak 16, zapatua. 21:30.  
► **En el reino de los gatos.** Umeentzako zinea. Goñi Portal.



Un franco, 14 pesetas filmearen fotograma bat

### ► Zinema

#### Aniztasunaren alde eta bereizkeriaren kontra

Martxoaren 21ean Arraza bereizkeriaren aurkako Nazioarte Eguna da eta horren harira film bereziak eskainiko dituzte Getxoko Zine-klubak eta Cinema Paradisok. Egun horretan, esaterako, *Un franco, 14 pesetas* pelikula ikusgai egongo da Getxo Antzokian. Emanaldia 19:30ean hasiko da eta sarrera, beti bezala, 2,90 eurokoa izango da. Proiektzioa baino lehen, gainera, *Hiyab* film laburra eskainiko dute. Martxoaren 23an, berriz, *Quinceañera* eta *Miradas sin excusas* filmak eskainiko dituzte, azken hori Getxoko Gazteak taldeak egindakoa. Pelikula biak azpitteludun jatorrizko bertsioan izango dira. 22:00etan hasiko da emanaldia eta orduan ere, 2,90 eurokoa izango da sarrera.

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** martxoak 21 eta 23

Martxoak 17, domeka. 18:00.

► **Azuloscurocasinegro.** Helduentzako zinea. Goñi Portal. Martxoak 23, barikua. 21:30.  
► **Pequeños salvajes.** Gazteentzako zinea. Goñi Portal. Martxoak 24, zapatua. 18:00.

Kunka. Getxo Antzokia. Martxoak 24, zapatua. 20:00. Sarrera: 10 euro.

### LEIOA

► **Enrique 5°.** Achiperre Teatro. Auditorium. Martxoak 25, domeka. 12:00. Sarrera: 4 euro.

### ERANDIO

► **Desarmada: olerkia eta musika.** Galatea taldea. Josu Murueta kultur etxea. Martxoak 17, zapatua. 19:30. Sarrera gonbidapenagaz.

## ANTZERKIA

### GETXO

► **Meando fuera del tiesto.**

## BESTEAK

### GETXO

► **San Patrik: folk kontzertua.** Algortako The Piper's Irish Pub. Martxoak 16, barikua. 22:00. Sarrera doan.  
► **Blues Caravan: Ladies' night.** Kontzertua. Getxo Antzokia. Martxoak 17, zapatua. 20:00. Sarrera: 12 euro.  
► **Umeentzako opera.** Getxo Antzokia. Martxoak 18, domeka. 18:00. Sarrera: 3,50 euro.  
► **Olerki eta musika errezitaldia.** Algortako kultur etxea. Martxoak 22, eguena. 19:00.

### LEIOA

► **Dantz: Staff.** Auditorium. Martxoak 15, eguena. 20:00. Sarrera: 6 euro.  
► **Kontzertua: Pata Negra.** Auditorium. Martxoak 16, barikua. 20:30. Sarrera: 15 euro.

### BARRIKA

► **Andrazkoentzako hitzaldia: Esti Olabarrieta.** Liburutegi zaharra. Martxoak 17, zapatua. 12:00.  
► **Txontxongiloak: Beti Lagun.** Kultur Etxea. Martxoak 24, zapatua. 12:00.

### ERANDIO

► **Bilboko Orkestra Sinfonikoa.** Josu Murueta kultur etxea. Martxoak 25, domeka. 19:00. Sarrera gonbidapenagaz.

### PLENTZIA

► **Hitzaldia: anorexia eta bulimia.** ACABE. Goñi Portal. Martxoak 14, eguaztena. 19:00.  
► **Hitzaldia: bular minbiziaren prebentzioa.** ACAMBI. Goñi Portal. Martxoak 20, martitzena. 18:00.  
► **Hitzaldia: erasokortasuna.** Garbiñe Etxebarria psikologoa. Goñi Portal. Martxoak 26, astelehena. 19:00.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

# VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



## ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA




Lehenbiziko orrialdean, Peruko Chinchero, ciudad del Arco Iris proiektuko negutegiak eta cuyak hezteko etxaldea. Bigarren orrialdean, Dominikar Errepublikan egiten ari diren Bajo la lluvia y la ilusión: los bateyes proiektuaren irudiak.



# Herria eraikitzen

Definizioz, irabazi asmorik gabeko onura publikoko erakundea da Izan. Baina, Peruko eta Dominikar Errepublikako hainbat bizilagunentzat hori baino gehiago da elkartea; herri horietan gizarte arazoengatik arduratuta daudenek egindako lanaren proiektzioa da-eta. Herritarren partaidetzaren bitartez sortutako ezagutzaren eraikuntza kolektiboan sostengatzen da Izanen asmo politikoa. Egunotan, egindako lanaren inguruko argazki erakusketa antolatu dute Uribe Kostako makina bat herritan.

Argazkiak: **Izan**





## Ereagan

Gezurra badirudi ere, orain dela urte batzuk arrantza ontziak ibiltzen ziren Ereaga hondartzako itsas-bazterrean. Gaur egun, ordea, arrantzaz bizi den pertsona bakarra geratzen ei da Algortako portuan. Argazki hau ikusterakoan gatx egiten zaigu luxuzko belaontzi dotoreak dauden kaian kolore guztietako olakaz egindako txalupa zein bouak euren sare eta guzti imajinatzea; ez al da horrela?

[berbetan]

Nongoa den galdetuta, Koldo Tellitu ez du erantzun zehatza ematen jakin. Barakaldon jaioa, berehala eroan zuten Oñatira, aita hara joan zelako lanera, Tximist enpresara. Handik urte bira, Gasteizera egin behar izan zuten ospa: Tximist hara joan eta, Tellitutarrak, trumoiak bailiran, haren atzetik. Gasteizen hazi zen beraz Koldo Tellitu, Olabide Ikastolan besteak beste. Zuzenbidea ikasi zuen gero, Donostian, eta ia hamarkada bi daroaz eremu horretan beharrean, LABeko aholkulari juridikoa da eta. Baina hori, egun erdiz baino ez. Beste erdia ikastolei ematen die. Hamar urte dira Leioan bizi dela, eta hasiera-hasieratik Betikon eduki ditu umeak. Gaur egun, bertako presidentea ez eze, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko ere bada, iazko azaroaz geroztik. Lehenago, Partaideko -hau da, EAEko ikastoletako- buru izan da lau urtez. Betikon egin dugu hitzordua beragaz, non bestela, eta luze jardun dugu ikastola kontuez. Osasuntsu antzean ageri dira orain, garai latzagoetako zauriak itxita -orbanen bat geratuko zen, hala ere-, eta frankismotik datorren eskarmentua berme dutela. Euskara salbatzeko sortu zirenek, orain, harago joan gura dute.

# Koldo Tellitu

## Ikastolak, euskara eta zeozer gehiago

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Urbe kostan hiru ikastola. Asko, gutxi?  
—Nire ustez gutxi, jakina. Baina 1993ko publikazio garaian bi geratzeko zorian egon ginen, Betiko-Gobela gatazka izugarria izan zelako. Azkenean, hemen egindako apustua aurrera joan da, eta Betiko ikastola handitzen ari da etengabe. Azken batean, Sopela, Getxo eta Leioa eskualdeko hiru gune garrantzitsu dira, eta hiruretan ikastola dago. Gure erdua nahi duen familia batentzat eroso eta erraza da ikastola batera joatea.

—Betiko Ikastola Ibilaldi bati esker salbatu zela esango dugu... Ala ez?  
—Uste dut gurasoek 93an egindako apustu izugarriak salbatu zuela. Zatiketaren ondorengo lehenengo bizpahiru urteak oso gogorak izan ziren, 150 ume geratu zirelako hemen. Eta horren ondoren, lehenengo taupada nagusia, hori bai, 97ko Ibilaldia izan zen. Matrikulazioan eta oihartzun sozialean eragin zuen. Kontuan

izan behar da hezkuntza munduan Betiko izena, Betiko “marka” esan dezagun, berria zela, eta hezkuntza munduan izen bat merkatuan ipintzea oso zaila da. Guk erai-kina atxiki genuen, baina izen barik. Eta izenak garrantzia dauka. Orain gutxi arte, Udaletxera joan eta hango mapetan Gobela ipintzen zuen. Hezkuntzan, ohiturak

### “Ikasleak euskaldun modura hezi nahi ditugu, ez bakarrik euskaraz”

aldatzea oso zaila da. Beraz, 97koa izan zen gure lehenengo taupada, eta 2004koa bigarrena.

—2004koa aipatu duzunez... zer lortu zen orduko hartan?

—Espero genuena. Diru aldetik gehiago espero genuen, baina guretzat izena zabaltea zen helburua, batez ere. Eta Ibilaldia antolatzen duzunean etengabe agertzen zara komunikabideetan. Horrek, dirutan,

propaganda kanpaina baten antzeko kostua dauka. Betikok lortu zuena, batez ere, hori da. Eta Ander Deunak ere bai, nik uste. Bi apustu egin genuen biok: bata, diruarena; bestea, oihartzuna, gizartean ikastola zer den erakutsi. Eta nik uste apustu bat oso ondo atera zitzaigun, eta bestea ez hain ondo.

—“Gizartean ikastola zer den erakutsi”. Eta zer da?

—Gure herritik garai batean eraturako eredu bat. Garai hartan, duela 40 urte, behar bat zegoen gure hizkuntzaren gano, eta uste dut euskara salbatzeko egindako ekarpen nagusia izan zela orduan. Gero, denboraz, eredu desberdin bat landu dugu: gure ikasleak euskaldun moduan hezi nahi ditugu, ez bakarrik eus-

Koldo Tellitu, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko presidentea >





karaz. Esate baterako, denbora asko “gal-tzen” dugu zenbait proiektuekin: bertsolaritza, esku pilota... Guztiek dute gure senarekin zerikusia, eta horri ematen diogun garrantzia sekulakoa da. Uste dut momentu honetan, talde moduan, ez diola beste inork ematen. Beste ideia garrantzitsu bat da hori: taldea izatea. Kristau eskolek edo ikastetxe publikoek ez dute talde moduan funtzionatzen. Guk, berriz, programa mor-doa egiten dugu, geure materialak sortzen ditugu... Talde moduan lan egiten dugulako egin dezakegu hala. Hirugarrenik, parte hartzea aipatuko nuke. Nahiz eta garai hauek oso onak ez izan alde horretatik, guk behintzat, oraindik ere, gurasoon inplikazio dezentea daukagu. Batez ere, noski, ikastola bakoitzaren organo gorena beren eskuetan dagoelako. Kristau eskolak erakunde erlijioso baten eskuan daude, publikoak administrazioarenean, baina gureak, oraindik, gurasoen esku. Horrek bizitasuna ematen dio gure ereduari.

—Ez da zuen ekarpena bakarrik, baina zuek ipini zenuten lehenengo hazia. Euskal curriculumaz nabil berbetan, jakina. Prozesu luzea da, baina gutxitan agertzen da komunikabideetan; ematen du hor dagoela baina ez dagoela...

—Herri honen gabezia handia da curriculumik ez edukitea. 1998an, horretaz jabetuta, lan egiten hasi ginen. Hasieran ikerketa lana izan zen, Frantziako curriculumaz aztertu, Espainiakoa, Europan daudenak, gure testu-liburuak... Eta ikusi genuen herri honek gabezia izugarria zeukala. Orduan aurrera egin genuen, hasieran bakarrik, baina momentu batean konturatu ginen guk bakarrik egiteak ez zeukala inongo zentzurik. Eta hasieran bidelagun bi eduki genituen batez ere: Udalbiltza eta Sortzen-Ikasbatuaz. Proiektua landu da, fase desberdinak egon dira, eta gehienak beteta daude: adituen ekarpenak, curriculum oinarritzko eta komuna, curriculum oinarritzko eta komunari egindako ekarpenak... Orain espezifikoa falta zaigu.

—Parkatu, baina erdi galduta nabil dago-

eneko... **Oinarritzkoa, komuna, espezifikoa, hara!**

—Especifikoa zera da: oinarritzko eta komunaren barruan, bereziki Euskal Herri-rako diren planteamenduak ezartzea. Eta horretan gabiltza. Bidea luzea da. Guk ez dugu administrazioak duen lege premia. Administrazioak, momentu honetan, datoren ikasturterako egin behar du berea, erkidegokoa, Nafarroan ere beste horrenbeste nafar gobernua. Baina gurea Euskal

### “Herri honen gabezia handia da curriculumik ez edukitea”

Herri osorako da, badauzkagu geure epeak eta horien arabera egingo dugu lan, ez daukagu presarik. Askotan esaten dugu belu-naldi ikuspegi egiten gabiltzala lan hau, ez dela orain amaituko, etengabea izango dela. Beraz, oinarriak sendoak izatea nahi dugu. Orain, jakingo duzue, eskola publikoko zenbait sektorek beste proposamen bat egin dute; bada, lan egin beharko dugu dena uztartzeko. Herri honek curriculum bat behar duelako, ez bi. Ondo finkatu behar dugu zer den oinarritzkoa eta komuna euskaldun guztiontzat. Gero, bakoitzak berea egingo du, curriculum bat da baina ikastetxe bakoitzak edo sare bakoitzak egiten du garapena. Orduan, herriaren biziraupena lortzeko ondo finkatu behar dugu, era-

### “Gure eskualdea moduko batean ez da nahikoa D eredu hutsa”

gile guztion artean, zer dugu komunean herri moduan, eta hori curriculumean txertatu.

—Zer iruditzen zaizu EAEko Eskola Kontseiluak hizkuntza ereduaren gainean egin duen proposamena?

—Gu, ikas-ereduen kontuetan, ba zera... Guk geurea daukagu, ikastolena, Euskaraz Bizi programarekin jorratzen duguna, eta printzipioz ez daukagu kezka handirik

horretaz. Baina hala ere, bat gatoz zenbait eragilek esaten dutenarekin: hizkuntza ereduaren sistema agortuta dagoela, askotan ez duela euskalduntzea ziurtatzen. Eta geu ere kezkatzen gaitu horrek. Eskola Kontseiluak egin duen planteamendu orokorra ona da, hau da, ondo finkatu behar da derrigorrezko ikasketak amaitzen direnean zer euskara maila eduki behar duten ikasleek, baina ez dute esan zein izan behar duen maila horrek, hori da lehenengo gabezia. Eta

bigarrenez, ebaluazioa ez da bakarrik 16 urterekin egin behar, tarteko ebaluazioek ere egon behar dute. Bestela, ikastetxe batek, bere autonomiaren aldarrikapenean, esan dezake: “Nire ikasleak maila baxuarekin joan dira, baina ez naiz azken arte konturatu”.

—A eta B ereduak ez dutela euskalduntzen bagenekien. Azken urteetako kezka izan da D ereduak ere ez duela ziurtatzen euskararen ezagutza egokia eskualderik erdaldunenetan. Eskualde honetan, ikasleek euskalduntzea?

—Uste dut baietz, baina ez D eredu delako, D ereduari beste zerbait gehitu diogulako baizik: Euskaraz Bizi proiektua. Izenak

ondo adierazten duen moduan, gure ikastetxeetako komunikazio-hizkuntza euskara izatea da helburua, eta gero, ikastolen inguruan egiten diren gauza guztiak euskaraz egitea: kirola, irakurketak... Nire ustez, ikastolek, eskualde honetan, nahiz eta eskualde “zaila” izan, euskaldundu egiten dute. Baina pentsatzen badugu gure eskualdea moduko batean nahikoa dela D eredu hutsa, txarto gabiltza. Ez baduzu beste pau-

sorik egiten, ikasleak konturatu egiten dira euskara gelako hizkuntza dela, eta ez bizi-tzarakoa. Hori da Euskaraz Biziren oinarria, alde guztietan egon dadila euskara.

—Uribe Kostako ikastoletan, jolas ordue-tan, erdara entzuten da gehien...

—Jakina. Baina ni ez nau hainbeste kezkatzen horrek. Beraiek konturatu egin behar dute euskarak esparru guztietarako balio duela. Gero, badago alderdi bat, soziolinguistek jakingo dute hobeto, irakasleari aurre egiteko modua dela erdaraz egitea... Nire etxean, nire semeek haserrarazi nahi nautenean erdaraz egiten dute. Baina hori, hemen eta Lekeition.

—Izan ere, adin batetik aurrera nabarmenagoa da esan dudana hori, ezta?

—Bai. 7-8 urtera arte ziurtatuta dago beren aisialdi guztia euskaraz izatea: Pirritx, Porrotx eta abar. Baina adin batera helduta, oso zaila da beraiek ikusi nahi

dituzten pelikulak euskaraz egotea, eta Play Stationeko jokoak ere, nik ez dut bat bera ikusi... Hor erronka izugarria daukagu. 10-11 urterekin umeak gizarteratu egiten dira, eta hor erdara da nagusi. Ikastolek egiten duten lana, nik uste, euskara hutsez bizi daitekeela erakustea da.

—Publikazioak eragindako zauria —zauria izan bazen— itxi egin da?

—Uste dut baietz. Eta bai, zauria izan zen, zenbait tokitan oso handia. Hemen, esaterako. Uste dut asmatu egin genuela horrekin; Buesak esan zuen ez zela gehiago barbarik egingo ikastolez, baina oraindik egiten da. Hamalau urte igaro dira, eta bakoitzak bere ibilbidea egin du. Sare publikora joan ziren gehienak Ikasbatuazera joan ziren, eta orain elkarlanean gabiltza, esaterako, curriculumean. Uste dut gizarateak nahiko argi ikusi duela bakoitzak zer eskaintzen duen, eta oro

har, badakiela ikastola bat mugimendu barrukoa den ala ez, hasieran nahastea egoten zen. Esaterako, ikastola mugimenduak aurten egingo du, lehenengo aldiz, matrikulazio kanpaina nazionala.

—Zergatik?

—Sumatu egiten dugulako 93ko publikazio garai horiek gaindituta daudela. Lehen, EAEn, matrikulazio kanpaina Partaideren izenean egiten genuen, derrigorrezkoa iruditzen zitzaigulako Partaide hitza agertzea gure ikastolak besteetatik bereizteko. Denboraren poderioz ikusi dugu gizarateak, oro har, badakiela hori. Beraz, kanpaina nazionala izango da.

—Oker ez banago, gainera, berreskuratu dituzue publikazio aurretik zenezkatzen matrikulazio kopuruak...

—Bai. Eta uste dut aurten gantitu egingo ditugula. m



## aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

**HARPIDETZA** > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....  
 Kalea & zenb.....Herria.....  
 e-mail.....Telefonoa.....

**Urtero**    20 euro    30 euro    50 euro    beste kopuru bat ..... euro  
 Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO   OOOO   OO   OOOOOOOOOO

**UK Uribe Kostako Aldizkaria**  
 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz  
 tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31





# Sestaon biziz

Orrialdeotara Iñaki Izquierdo argazkilariaren *Seston Biziz* liburuaren lagin bat ekarri dugu. Lan honek herri horren aldaketa azkarra jasotzen du, herri erabat industrialia zen garaiaren bukaera. Argazkiok amaitu den garai horren azken lekukotza dira. Historia horren protagonista zuzena izan da Izquierdo, izan ere, Iberiako aldapan hazi zen, labe garaien alboan eta langileen etengabeko joan-etorrien artean. Batetik, urbanismo latzean, langileak “biltzeko” egindako hirian ipini du arreta argazkilariak; bestetik, medio latz horretara egokitu diren biztanleengan. Iñaki argazkilaria dokumentalista da, eta ez parte hartzearen printzipioaren arabera jokatzeko du, hau da, bere lanek gertatzen denaren lekukotza baino ez dute izan gura.

Argazkiak: **Iñaki Izquierdo**









## zineeskola

Oskar Fernandez

## Euskal Herria eta zineklubak (I)

XIX. mendearen amaieran sortu zen zinema –asmakizun kolektibo bezala– ondoren zazpigarren arte bilakatu zen, eta handik urte batzuetara, hogeigarren mendearen hasieran, lehenengo zineklubak sortu ziren: Frantzia eta Espainiako estatuetan... eta Euskal Herrian ere bai. 1928. urtean, Madrilén, “La Gaceta Literaria” aldizkari abangoardistari esker lehenengo zinekluba sortu zen, “Espainiar Zinekluba”. Zinemagile handia eta bikaina zegoen sortzaileen artean: Luis Buñuel. Zineklub honek hainbat eta hainbat zineklub bultzatu zituen Estatuko hainbat hiritan. Euskal Herriari dagokionez, hurrengo urtearen hasieran 1929an, Donostian, Bilbon eta Gasteizen lehenengo zineklubak agertu ziren. Baina erakunde zinematografiko hauek izan zuten iraupena iragankorra izan zen: Madrilekoak hiru urte baino ez zen iraun eta Euskal Herrikoek are gutxiago. Sei urte igaro behar izan ziren ekintza kultural horiek berpizteko: 1934. urtean Bankako Langileen Elkartek, Bilbao zinearetoan “zineklub langilea” emanaldia eman zuen. Guda zibila deitutako gatazka bortitza eta izugarria igaro ondoren, berrogeita hamargarren hamarkadan zineklubak berriro agertzen dira. Baina oraingo honetan guztiz desberdinak izango dira. Hasieran eta errepublika garaian, zineklubetan intelektual liberalak protagonismoa eta garrantzi handia zeukaten, baita ezker erakunde politikoen ere, baina altxamenduaren ondorioz dena pikutara joan zen, Eliza Katolikoak eta eskumako erakunde politikoen –demagun: oso ospetsua izan zen SEU ( Espainiar Sindikatu Unibertsitarioa) –zineklubekoen lema hartu baitzuten. Dirudienez, guda ostean hego Euskal Herrian birsortutako lehenengo zinekluba “Vitoriako Zinekluba” izan zen.

**Invisibles,** zabaldu begiak

Mugarik Gabeko Medikuak, Bardem eta bost zuzendari ezagunen begirada ikusgarria

**Urruneko** ezbeharrei begiak ixtea, gertatu ez balira legez jokatzea erraza egin dakiguke. Gure pribilegiozko munduan gertatzea ezinezkoa litekeenez sinesgaitzak zaizkigu. Norbanakoaren arazoan aurrean ezikusierena egitea bezain erraza liteke, burua alboratzean arazoa desagertzen al da? Planeta bereko mundutarrak gara, batzuek ahaztu arren.

Aspalditik daroa Mugarik Gabeko Medikuak (MGM) GKEa hondamendietan, krisietan, gudetan eta gaixotasun sendagarriengatik sufritzen dutenei laguntzen, itsu interesatuei “ikusezina” begi aurrean jartzen, salatzen. Akorduan ditugu horren gainean UKn MGMen zuzendari nagusi Aitor Zabalgoeazkoak getxoztarrak aitortutakoak.

**«Coixet, Leon de Aranoa, Javier Corcuera, Wim Wenders eta M. Barroso»**

Orainsu beste ekimen bat gauzatu dute GKEak eta Javier Bardemen ekoiztetxeak: Berlinale zinemaldian aurkeztutako *Invisibles* filma. Bardemek dioenez, “helburua indiferentziak mutu utzitako batzuei ahotsa ematea da, eta urteotan begiratzeko jakin dutenei omenaldi xehea egi-



Pelikularen fotograma bat

tea”. Dokumentalaren eta fikzioaren erdibideko pelikula zuzendari ezagunek sortutako 5 film laburrez osatzen da: *Cartas a Nora* (Isabel Coixet), *La voz de las piedras* (Javier Corcuera), *Crimenes invisibles* (Wim Wenders), *Buenas noches, Ouma* (F. Leon de Aranoa) eta *El sueño de Bianca* (Mariano Barroso). Gai nagusiak hauek dira: “chaga”ren izurria Bolivian, biolentzia egoeretako iheslariak Kolonbian, Congon sistematikoki bortxatutako emakumeak, Ugandako haur eta ume soldaduak, eta loaren gaixotasuna eta botika-industriak. m

**Ez galdu > “Jazireh ahani”**

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: martxoak 23, barikua • Ordua: 22:00 • Zinema Paradiso



Film honen zuzendaria Mohammad Rasoulof iraniarra da. 23 urteko zinemagile gazte honek Soziologia eta Muntaketa ikasi zituen Teherango unibertsitatean. *Jazireh ahani* (Burdinezko uhartea) bere bigarren film luzea da. Duela hamaika urte berak idatzi zuen antzezlan batean oinarritzen da filmerako erabilitako gidioa. 2005ean Xixon hirian antolatzen den zinemaldian, epaimahaiaren Sari Berezia lortu zuen film honek drama bat kontatzen du: Iraneko hegoaldeko kostaldean jende askok ez du non bizi eta itsasoan bazterturik dagoen itsasontzi zahar bat etxebizitza bezala hartuko dute. Itsasontzian komunitate bat sortzen da, eta beste edozein giza taldetan bezala, bataioak, ezkontzak... ospatzen dira, umeak normaltasun osoz eskolara doaz...

**Bluesa** eta andrazkoak

**Blues Caravan: Ladies' Night** ikuskizuna egongo da gozagai Algortan hilaren 17an



Blues Caravan taldeko kideak

**Austria,** Belgika, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Britainia Handia, Alemania, Italia, Norvegia, Suitza eta beste hainbeste herrialde-tako oholtzak koloreztatu ostean Getxok ere Sue Foley, Deborah Coleman eta Roxanne Potvinek osatzen duten *Blues Caravan: Ladies' Night* ikuskizuna zuzenean ikusteko aukera izango du.

Orain dela 2 urte kanadar blueslari Sue Foleyk *Blues Guitar Women* CD bikoitza plazaratu zuen, bertan blues tradizionala eta garaikidea jotzen duten bi dozenatik gora artista andrazko batu zituen. Ekimen horri jarraipena emateko

asmoz, hurrengo aurrerapausoa Blues Caravan-en bira antolatzea izan da. Oraingo emanaldian parte hartzen duten hiru blueslariok hazten doan emakumezko blues jotzaileen belaunaldi baten adierazgarri dira.

Foley eta Potvin kanadarrak eta Coleman estatubatuarra itzal handiko *blueswoman*-ak dira, eta zuzenean joko dute Getxo Antzokian hilaren 17an 20:00etatik aurrera. Sarrerek 12 euroko prezioa daukate eta dagoeneko salgai daude. Ez da edozelako kontzertua, aukera itzela baino getxoztarrentzat eta eskualdeko lagunentzat 3 andrazko blueslariren entzunaldiaz gozamen hartzeko. m

## diskoak

**Too much love**  
Harlan T Bobo  
Houston Party



Sei urtez bere neskalaguna izandakoari eskaini dio T Bobok disko hau, eskutitz ireki baten antzera; izan ere, bikoteagaz bizitako ezbeharrak agerian uzten ditu. Tim Prudhomme (Fuck), Jeremy Scout (Reigning Sound), Brendan Lee Sprengler eta Shane Callaway (Viva L'American Death Ray Music) dira diskoa osatzen duten kantuen arduradunak.

**Reggae lovers**  
Euridia  
Briston Records



Ibon Larruzea, Akatz taldeko partaidearen proiektua da Euridia. musika tresna ugari jotzen dituen musikari fina da Ibon, gainera abeslaria ere bada. Disko hau 2004. urtean hasi zuen grabatzen eta *lovers reggae* estiloa da nagusi. Kanturik gehienak Ibonek berak konposatu, abestu eta jotzen baditu ere, Akatzeko musikariaren eta The Illusionary Banden laguntza eduki du.

**Nomadak TX**  
Oreka Tx  
Txalapart



Lau urtez munduan zehar batutako musiken esentziak osatu dute Oreka Tx taldekoek honako diskoa. Guztira 14 abesti sortu dituzte eta bat izan ezik gainerakoek bidaiean ezagututakoa erakusten dute; izan ere, Mikel Laboak Artze poetaren berbak sortutako Martxa baten lehen notak kantuaren bertsoia egin dute. Angel Unzu egin ditu moldaketak.

**lehenengo lana >**  
Celsius32

Alas izena eman dio lehenengo diskoari 2004an sortu zen Celsius 32 taldeak. Genetic Corp. eta ETa HiruBeltz taldeen errautsetatik jaiotako taldeak 12 kantuz

osaturako lana plazaratu du Baga-Biga disketeagaz. David (ahotsa eta gitarra), Pino (bateria), Txonan (baxua), Mario (gitarra) eta Samuelek (teklatura) egiten duten musika estiloak Sober edota Estirpe taldeena gogorarazten die musikazale askori. Gaztelaraz abesten du Algorta, Leioa, Mungia eta Sopelako boskoteak eta euren estreinako lana ohiko saltokietan edota sarearen bidez eskura daiteke. New Tavernen (Gorliz) emango dute kontzertua apirilaren 14an (00:00).

Informazio gehiago: [www.celsius32.com](http://www.celsius32.com)

**Barricada >**

## urteurrenoko bira

Mende laurdena beteko du Barricada taldeak aurten. 25. urteurrena ospatzeko kontzertu bira egingo dutela iragarri dute Enrique Villarreal *El Drogas* eta bere mutilek. Txantreakoen ibilbidea osatzen dute 20 bat lanek eta 200 bat kantek, kontzertuen kopurua zehaztea ezinezkoa litzateke, eta beste hainbat kontu kontu ezinak. Data eta leku batzuk zehaztu dituzte dagoeneko eta beste asko oraindik ez, beraz adi egon beharko! Hala ere, aurreratu duten gauzetako bat kontzertuen iaera da, eta diotenaren arabera, zati bat behintzat akustikoan izango ei da. Zorionak Barricadakoiei eta urte askotarako!

etorri  
eta  
ikusii!

**MORIXA**  
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta

## Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

### Odola emateko egunak

ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako Metro Plaza  
**apirilak 16**

Erromoko Kultur Etxea  
**apirilak 19**

Zatoz odola ematera,  
ez itxaron!

Informazioa: 900 303 404

**BASALBO BASERRIA**

**JATETXEA**

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

## Irakurzaleak berriro martxan

**Hil honetan** ekingo diote denboraldi berriari eta horretarako **Irati Jimenez** da gonbidatua

**Irakurzaleen Txokoak** gutxi gorabehera prest dauka hil honetatik hasi eta abendura arteko gonbidatuen zerrenda. Irakurzaleek hilean behin zita daukatela eta noiz eta non izango den galderen artean ez zoratzeko asmoz, aurton ere Irakurzaleen Txokoko arduradunek ondorengo erabaki dute: hileko azken eguaztenetan arratsaldeko 8:00etan Villamonte kultur etxean ekingo dituzte berbaldiak edota mahai-inguruak.

Pasa den urtean literatur zaleon topalekura hurbildu zirenek 8 bat idazlegaz egoteko aukera izan zuten, berbarako: Unai Elorriaga, Lutxo Egja, Patxi Zubizarreta edota Iñaki Frieda. Arduradunek

### «Lehenengo zita Aldai Patronatoan hilaren 28an, arratsaldeko 8:00etan»

ondorioztatutakoaren arabera, iazko deialdietan batez beste 30 bat lagun biltzen ziren euskal literaturagaz gozatzeko.

Aurten Nahikari Ayo, Josu Larrañaga eta Ana Musapadi dira Irakurzaleen Txokoaren antolaketaz arduratuko direnak eta ondorengo hau duzue ezustekorik ezean aurten prestatu duten egitaraua: Irati Jimenezek *Bat, bi, Manchester* libu-



Irati Jimenez

ruaren gainean ekingo du berba, Jon Maiak *Riomundo-z* (apirila), Xabier Olarrak *Estilo Liburuaz* (maiatza), Mikelazulo elkarteak ere egongo dira uda ostean (iraila), Julen Gabiriak eta Xabier Payak *Peter Pan* izango dute berbagai (urria), "Emakumeak Euskal Literaturan" mahaingurura hurreratuko dira Laura Mintegi, Ana Urkiza, Sonia Gonzalez (azaroa), etab.

Alabaina, arazo batzuk medio, Irati Jimenezen hitzaldia Adai Patronatoan ekingo da (Karidade kalea, Algorta), hori bai, arauri jarraituz, martxoaren 28an, 20:00etan. <sup>m</sup>

liburuak

**Marearen erraetan**  
Jose Inazio Basterretxea  
Alberdania

Bilbon eta Bartzelonan gertatzen dira idazleak oraingoan sortu dituen istorioak. Hiru emakume eta gizon bat dira pertsonaia nagusiak eta film bat ez izan arren, narrazio zinematografikoa darabil Basterretxeak. Iragana, oraina eta etorkizuna nahasten ditu.

**Aulki bat elurretan**  
Uxue Balardi  
Elkar

Idazle gazteentzako VIII. Igartza Saria irabazi zuen Uxue Alberdik ipuin-bilduma baten proiektuagaz eta, hain zuzen ere, lan hori oinarri hartuta liburua kaleratu du, Aulki bat elurretan izenburupean. Suedian girotutako istorioak idatzi ditu gazteak.

[kirola]

## Barrika Surf Taldea

**Ez da barrikarren** taldea bakarrik, hainbat herriko surflariak dabilta bertan



Argazkian, taldekide batzuk. Informazio gehiago: [www.barrikasurftaldea.com](http://www.barrikasurftaldea.com) edota 617 467 564

**Aurretik** ekitaldi andana antolatzen bazituzten ere, "ofizialki" 1994an eratu zuten Barrika Surf Taldea (BST). Baina gaur egun taldeko presidente den Jabi Bizkarguenagak argi adierazi duen legez, "historikoki taldea ez da bakarrik Barrikako taldea izan, benetan Barrikako hondartzan surf egiten duten barrikarrak ez dira asko; taldekide gehienak Gorliz, Plentzia, eta Armintzakoak dira eta udalerriotan udara pasatzen duten surflariak ere badira taldekide; egia esan, gehienbat, hondartza horretan gabiltzalako ipini zitzaion izen hori".

Taldeak 300dik gora bazkide dauzka, baina Bizkarguenagak azaldu duenez "datu hori apur bat puztuta egon daiteke, surf eskolan ibilitakoak ere bazkide egiten direlako, gutxi gorabehera Barrikan surf egiten dugun betikoen kopurua zenbatekoaren erdia edo izango gara".

Izan ere, zerbitzu interesgarria eskaintzen dute Barrika Surf Taldeko eskolan: urte osoan eta asteko egun guztietan dago zabalik, ikastaroak talde txikietan ematen dituzte, garraio zerbitzua daukate (topaleku batekiko joan-etorria); ikastaroak hiru mailatan (lehenengo

urratsak, jarraipena eta txapelketetarako entrenamenduak); ikastaroa hiru hizkuntzatan jasotzeko aukera dago (euskara, gaztelera eta ingelesa)... "lehen alemanieraz ere jasotzeko aukera bazegoen; bestalde, prezioen inguruko nondik nonakoak hobe da web gunean begiratzeta", jakinarazi du BSTko presidentek.

Neguan Plentzia-Gorlizko hondartzan jarduten dute, eta udan Barinatzen ematen dituzte eskolak, ostera Barrikako hondartzak harkaitzak dituzenez bertan sakontze eskolak bakarrik ematen dituzte, "lehen urratsak emateko arriskutsua izan daiteke", argitu du Bizkarguenagak.

### «Eskola urte osoan zehar eta asteko egun guztietan dago zabalik»

Bestalde, txapelketak ere antolatzen ditu BSTk, "urtean gutxienez bat bai, abuztuik urrinako tarte horretan izaten da". Gaur egun ez daukate egoitza eta dute laguntza bakarra, "ez dakigu aurten izango dugun", Barrikako Udalarena da (900 euro). "Taldea gure gogoan eta ekimenengatik jarraitzen du aurrera". <sup>m</sup>

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa  
Kirol moda



**350** <sup>M<sup>2</sup></sup>


KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPON-  
SERVITEC

Lacofris, s.l.



• MARKA GUZTIAK  
• 24 ORDUTAN ERANTZU-  
NA  
• 3 HILABETEKO GARAN-  
TIA  
• 25 URTEZ ZURE ZERBIT-  
TU

& 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

san inazio

autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
**baimenak**

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

**Iñigo Garitaonandia** > Izan elkarteko kidea

“Ekoizpena ardatz moduan daukaten proiektuak lantzen ditugu”



Izan elkarteak Telletxe kaleko 17.ean dauka bulegoa

Izan elkarteak 1993an jaio zen Gasteizen. Denboragaz, aldiz, elkarteak handituz joan da eta gaur egun hainbat herrialdeetan jarduten du, tartean, Perun eta Dominikar Errepublikan. Horrez gain, bulegoak ireki ditu Euskal Herriko lurralde guztietan, Algortan esaterako. Gauza askoren artean, argazki erakusketa antolatu du Uribe Kostan, atzerriko proiektuen berri emateko asmoz. Informazio gehiago: [www.izan.es](http://www.izan.es)

—Zer da Izan elkarteak?

—Hasieran arazoak zituzten familiakaz eta umeakaz behar egiten genuen, baina ondoren adopzioaren esparruan murgildu ginen. Horrez gain, nazioarteko kooperazioan ere jarduten dugu eta gizarteratzeko enpresa bat zein erakundeentzako aholkularitza zerbitzua ere badaukagu.

—Atzerrian ere lan egiten duzue orduan.

—Bai. Perun eta Dominikar Errepublikan hasi ginen, herrialde horietan jende nahikoa ezagutzen genuen eta. Gaur egun, berriz, Bolivian, Kolonbian, Salvadorren eta Guatemalan ere badauzkagu proiektuak. Hala

eta guztiz ere, indartsuenak hasierako biak dira, Perukoa eta Dominikar Errepublikakoa alegia.

—Zeintzuk dira herrialde horietan daukazuen proiektuen helburuak?

—Ekoizpena ardatz moduan daukaten proiektuak dira gehienbat. Perun, esaterako, elikadura segurtasuna da ildo nagusia (Dominikar Errepublikako proiektua ere oso antzekoa da). Onarizko saneamendua bermatzeko lan batzuk ere egiten ditugu: komunak, ur edangarria... Hainbat lekutan gauza solteak egitea baino, zonalde bakar batean lan egitea da gure asmoa, bertako jen-

deak aurrerapausoak nabari ditzen. Garapeneko proiektuak oso geldoak dira eta denbora asko behar da horiek aurrera ateratzeko. Gainera, burutuko diren proiektuei buruzko prestakuntza eskaintzen diegu bertakoei: elkartegintzaren inguruko informazioa, parte hartzea...

—Uribe Kostan zuen proiektuen inguruko argazki erakusketa antolatu duzue.

—Alde batetik, egitasmo honegaz elkarteak ezagutzera eman gura dugu eta, bestetik, herrialde horien errealitatearen berri eman. Inbertitzen den dirua ondo erabiltzen dela jakinarazi gura dugu, erakundeek onartuta-

**«Inbertitzen den dirua ondo erabiltzen dela jakinarazi gura dugu»**

ko proiektuakaz soilik behar egiten dugula. Egia esateko, nahiko arrakastatsua izaten ari da erakusketa. Momentu honetan Sopelan daude argazkiak, baina martxoan Erandiora eroango ditugu. Zehazki, Perun eta Dominikar Errepublikan martxan dauden ekintzak erakusten dituzte irudiok. Egitasmoak oso antzekoak dira: animalien etaldeak eta negutegiak abian jarri ditugu. Bertakoek euren beharrianak asetzeaz gain, produktuak merkaturatzen dituzte horiekaz.

—Zeintzuk dira zuen etorkizuneko proiektuak?

—Hezkuntza arloko egitasmoak izango dira. Alde batetik, institutueta lantzeko komiki bat sortzen gabiltza, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak aintzat hartuko dituen. Beste aldetik, pertsona nagusiak ere lan egin gura dugu, hau da, erretiratuaren elkarteetako zein nagusien etxetako jendeagaz. Horientzat erakusketak, merkataritza zuzeneko produktuakaz prestatutako meriendak, hitzaldiak eta abar antolatu gura ditugu. m

Testuak eta irudia: Xabi Bilbao

**Esakere** > “Adore barik es gos iñora”

Alde batetik aitu ezkeron makiñan antzeko gara personak: mogidu egiten gara, behar egiten dogu, berotu egiten gara martxa andiegin ibilli ezkeron... Baia ezin gara ibilli ta ibilli lotu barik: "gasoline" behar dogu ibiltzeko. Eta hortxe dau kontu: Zein da gasolinarik onena? Batzuk, yanari ona esango daude, beste batzuk, igual edari, beste batzuk deskantsu,... baia asko-askok beste hau esango daude dala inportanteena: animu, adore. Ze, adore ez badau, alperrik da beste dana. Eta ostera, adore badau, dana egin leite.

Esakeratxu hau I. Gilisastin *Berba lapikokoa* liburu ederratik atara dogu.

**Gureberbakere92****GURE AZENTU (XIV)**

Berbakere 88n aditzeri azentu emoten dautsen atzizkik ikusi genduzen. Batetik, **-ta** eta **-keran** atzizkik (*egóna*, *egókeran*), azentu aurreko silaban iminten daudenak; eta bestetik **-te** atzizki eta bera deklinatute sortuten direzenak (*egotek*, *egoteri*, *egoteaz*, *egoteko*, eta abar), eta gero aldiko **-ko**. Honek danak silaba bi aurrerago iminten dautse azentu aditzeri: *égote*, *égoteri*, *égoteko*, *égonko*.

Honek atzizkik egiten daudezen azentukerak aituten badoguz, ikusiko dogu aditzek aitetuteko erabilten direzen hiru partizipioek era honetako hirukoteak emoten daudezela (lehelengo partizipio azentubako dalako, eta beste biek azentudunek):

—n: *egon*, *égoten*, *égonko*.

—n: *esan*, *ésaten*, *ésango*.

—i: *ekarri*, *ékarten*, *ékarko*.

—i: *imiñi*, *iminten*, *imingo* (edo *imiñiko*).

—tu: *batu*, *bátuten*, *bátuko*.

—tu: *galdu*, *gálduten* (edo *gáltzen*), *gálduko*.

Beste amaiera batzukez bardin pasaten da:

*erre*, *érreten*, *érreko*.

*yo*, *yóten*, *yóko*.

*atara*, *atáraten*, *atárako*.

Honek danak, aditz azentubakok direz, ze azentu koixten daude bakarrik atzizkik emoten dautsenen, ikusi dogun lez. Baia beste alde batetik, izen eta adjetibokaz ikusi gendun lez, aditzekaz bere badauz azentudunek direzenak: *bóta*, *érein*, *éron*, *yáusi*, *hasárratu*, *ikératu*,...

Honekaz aditzekaz bardin da ze atzizki doan, badauke azentu berez, eta azentu ez da mogiduten atzizki bat zein beste iminte:

*bóta*: *bótaten*, *bótako*, *bótate*, *bótakeran*, *bótateko*.

*érein*: *éreiten*, *éreingo*, *érite*, *éreikeran*, *éreitego*.

*éron*: *érotan*, *érongo*, *érote*, *érokeran*, *érotego*.

*yáusi*: *yáusten*, *yáusiko*, *yáuste*, *yáusikeran*, *yáusiteko*.

*ikératu*: *ikératuten*, *ikératuko*, *ikératute*, *ikératukeran*, *ikératuteko*.

Gaurkoz hemen itxiko dogu. Hurrengo arten!



# Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23  
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

## OSABIDE HORTZ KLINIKA Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor-  
ma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Biébarri 27, behea eskulina  
ALGORTA  
94 430 76 96




## Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

## GAVRKO



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

## María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA





gaizka escudero / basalbokoia

## Buzkentza

hostopila

Erraz eta gonbidatuen aurrean primeran lotzeko platera proposatzen dizuet. Hasteko hostopila (edo hojaldrea) buzkentza eta pikilozko piper gorriekin bete. Hostopilak izozturik saltzen dituzte, horietan erabiltzen ditut nik. Arrautz bat irabiatu eta hostopila brotxa batekin pintatu. Labean sartu eta egin. Bestetik, saltsak prestatuko ditugu. Lehenengo porruzkoa. Ondo txikitu barazkia eta gurinarekin zartaginean su ez-tian bigundu. Gero esnegaina, pipermina eta kofiak apur bota eta saltsa loditu arte sutan eduki. Bigarren saltsa segituan egiten da. Pikilozko piperrak eta esnegaina ontzi batean sartu eta irabiagaluarekin nahastu. Pipermin apur bat ere bota. Platera aurkezteko ipini erdian hostopila, alde batean porru saltsa eta bestean gorria. On egin! m

osagaiak

hostopilak • buzkentza • pikilozko piperrak • porruak • gurina  
esnegaina • kofiak • pipermina



itsaso arana / jolastokikoa

## Bobal

Beste izen batzuekin ere ezagutzen da *bobal* mahatsa, esaterako, *tinta de Requena*, *requeni* edota *provechon*. Ez dauka oso ospe onik, izan ere orain dela 30 urte arte, granelean saldu izan dira bobelaren uzta osoak. Orduan hasi ziren berarekin ardao zainduagoak egiten, egurrean zahartuak, gehienetan tempranillo, garnatxa eta monastrellarekin nahasturik. Mahats honen ezaugarriak azpimarrarrienak bere alkohol maila txikia (11 gradu ingurukoa) eta bere garratzasun handia dira. Oso landare emankorra da eta Valentziako Utiel-Requenan jatorri izendapenean landatzen da gehien, izan ere hantxe lurren %90 hartzen ditu. Handik kanpo nekez topa daiteke. Ematen dituen ardaoak gerezi kolore ilun deigarria izaten dute, sudurrean belar ikutuak eta ahoan, taninoak eta garratzasuna nabarmentzen dira. Berarekin ere ardao gorri estimatuak egiten dira. m



## Cafe a go-go

Etxeko tartak eta rock-and-rolla



Marcela, Jorge eta Susana

**Aspaldiko lagunak** dira Jorge, Marcela eta Susana eta asko nabaritzen da hori tabernako giro beroan. 2005eko urrian ireki zuten *Cafe a go-go*, Marcela lokalaz maiteminduta gelditu ostean. Auzo lasaian kokatuta egon arren, gutxinaka, jendea hurbiltzen joan da eta giro polita sortzea lortu dute: "Gehien kostatu zaiguna auzotarrak erakartzea izan da, ez dute-eta auzoan gelditzeko ohiturarik".

Goitik behera aldatu dute lokalaren dekorazioa: 70eko hamarkadako lanparak, loredu papera horietan, munduko hainbat herritatik ekarritako apaingarriak, eserleku zaharrak... "guri gustatzen zaigun txokoa sortzea lortu dugu eta hori oso garrantzitsua da". Musikari dagokionez, bakoitzak

bere ukitu pertsonala ematen dio: "Bluesa, rocka, soula... bakoitzak berea jartzen du eta horrek dinamikotasuna ematen dio lokalari".

Orain dela pare bat hilabete erakusketekin hasi ziren: "Lasai hasi gara, paisaiekin, baina gauza indartsuagoak eta deigarriagoak ekartzen joango gara". Blanca Oraa eta inguruko beste artista batzuen lanak izan dituzte dagoeneko, eta aurrerantz, artista gazteen lanak ekartzea espero dute: "Erakusketa aldatzen dugun bakoitzean lokala ere aldatu egiten da". Honez gain, jai tematikoak ere antolatzen dituzte, "hori bai, 11:30ak arte bakarrik". Las Vegas, Road Stewart... berdin du aitzakia zein den, garrantzitsuena sortzen den giroa da. m

Arkotxa 13. ALGORTA / Tel.: 94 602 26 71

## JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



## Asado



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gauetz dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14

Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA  
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik  
onenak ditugu  
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO

CAFE  
**Usategi**  
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

**KONTXI**  
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T: 94 491 02 93

**G** gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

**prentsa • aldizkariak**  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

**GOIZEAN**

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

**aldizkaria etxean jaso nahi baduzu**

uk@aldizkaria.biz  
94 491 13 37

[horoskopoa]


<p><b>URA</b> t</p> <p><b>(Abenduak 21 urtarrilak 19)</b> Zeure buruari gehiegi exijitzen diozu eta horrek presiopean egotera bultzatzen zaitu. Osasunak eskertuko dizu atsedean handiagoa hartzea. Bese-teen laguntza eskertzekoa izaten da, zergatik uko egin?</p>	<p><b>OTSOA</b> t</p> <p><b>(Urtarrilak 20 otsailak 18)</b> Ez duzu aldatzeko asmorik? Bada garaia helduago egiten hasteko. Horregatik, esaterako, min egin diezun pertsoneri azalpenak ematen hastea ez da ideia txarra. Guztiak, onerako, harrituko dira eta zu hobeto sentituko zara.</p>	<p><b>ADARRA</b> t</p> <p><b>(Otsailak 19 martxoak 20)</b> Ez dakit ohartu zaren baina zure bikotekidea bakarrik sentitzen da eta berataz ahaztu zarela uste du koitaduak. Laztan gehiago eskatzen ari da. Denbora larregi ematen duzu bulegoan eta lantzean behin deskonektatzea ez da txarra.</p>
<p><b>AITZURRA</b> t</p> <p><b>(Martxoak 21 apirilak 19)</b> Bihotz onegia edukitzeak kalte handia egingo dizu, baina maite duzun pertsona batek lagunduko zaitu. Eta, nork daki? Agian, maitasuna ere piz daiteke zuon bion artean.</p>	<p><b>HOSTOA</b> t</p> <p><b>(Apirilak 20 maiatzak 19)</b> Lan egitea, kalera irtetea, lagunekin geratzea... dena ere kostatu egiten zaizu, erabat nekatuta zaude. Baliteke aspaldi honetan daramazun erritmo biziak kalteordaina pasatu izana. Lasaitasunez aurre egin betebharrei.</p>	<p><b>EGUZKIA</b> t</p> <p><b>(Maiatzak 20 ekainak 18)</b> Arriskatzeko unea iritsi zaizu. Berria edo ezezaguna denari beti izan diozu beldurra, ez duzu birritan pentsatu gabeko pausorik eman. Aldatu egin behar duzu. Bizitzari aurre egin behar diozu, honek zu jan baino lehen.</p>
<p><b>GARIA</b> t</p> <p><b>(Ekainak 19 uztailak 18)</b> Emozionalki izugarritzko oreka egoerara iritsi zara, behar zenituen egonkortasuna eta ziurtasuna topatuz. Baina kontuan eduki gehiegizko ziurtasuna edukitzeak jendeak esaten duena gaitzestera eraman dezakeela. Ez itzazu lagunak atzean ahaztu.</p>	<p><b>LASTOA</b> t</p> <p><b>(Uztailak 19 abuztuak 17)</b> Lehenengo begiradan irtenbiderik ez duten egoerak topatuko dituzu. Baina zure senari jarraituz hasiera batean ematen zutena baino errazagoak izango dira gertakari horiek. Abilezia honi esker jende askorentzako euskarri sendo bilakatuko zara.</p>	<p><b>IRATZEA</b> t</p> <p><b>(Abuztuak 18 irailak 16)</b> Lan kontuetan maitasunezkoetan baino interes handiagoa duzu. Jarrera hau zure alde erabil dezakezu, jende berria ezagutzeko aukera eskaintzen dizulako. Zure kontra ere itzul daiteke, eta zu bakardadera bultzatu.</p>
<p><b>META</b> t</p> <p><b>(Irailak 17 urriak 16)</b> Hau marka! Beti eztabaidan zure bikotekidearekin eta oraindik ez zara ohartu ika-mika horiek ez dutela ezertarako balio. Ideia berriak dituen norbait ezagutuko duzu lanean, eta oso proposamen erakargarria egingo dizu.</p>	<p><b>HAZIA</b> t</p> <p><b>(Urriak 17 azaroak 15)</b> Aspaldidanik gaixotasun bat baduzu laster guztiz sendatuko zara. Aurrezteko unerik egokiena ez izan arren, horretaz pentsatzea komeniko litzaizuke etorkizunari begira, badaezpada ere. Lanean sormena oso bizi edukiko duzu.</p>	<p><b>NEGUA</b> t</p> <p><b>(Azaroak 16 abenduak 20)</b> Denbora gehiegi igarotzen duzu etxe zuloan sartuta. Ondo etorriko zaizu bidaia txo bat egitea, horrela gauzak beste modu batera ikusiko dituzu. Eguraldia aldatuz doan neurrian gehiago mugitzeko gogoia izango duzu, baita zure lanean ere.</p>

**mungia**  
oKINDEgia

*Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA



denborapasa


LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Tekniken eta jakintzen aplikazioa. 2. Lurrean jaso. Atzizkia. 3. Irinez estali edo hautsezatu. 4. Egilea adierazten duen atzizkia. Atereak. 5. Aita, erlijio ordenetan. Elefanteen letaginen gai leun, gogor eta zurixka. Bokala. 6. Germanioaren ikurra. Mirespenez begietsi. 7. Bilo. Bostehun. Bakun. 8. Nahi ez izatea. Letra grekoa. 9. Jalgi. Beldur handia. 10. (Errep.) Txori mota. Egintza, egitea. Potasioaren ikurra.

Goitik behera

1. Teilak lantzen dituztenak. 2. Oidartu, aurka altxatu. 3. Portu. Bokala. Lixiba. 4. (Haur hizkeran) HAur txiki. Mila. Garoa, iratzea. 5. Makurbideak, okertzeko bideak. 6. Erlearen antzeko intsektu. Abederako azken letra. Kontsonantea. 7. Oxigenoaren ikurra. Telebistako saio. 8. Arroka mota. Azken eta lehen letrak. 9. Letra grekoa. Angeluen funtzio trigonometriko. 10. Bokala. Kortak, heiak.



Soluzioak



asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Bilboko aktorea
- Oskarretako alfombra gorrian izan da aurtan
- Telebistako auzorik xeblebreanean ikusi dezakegu astean behin

> Aurrekoaren erantzuna: Roberto Laiseka

> Irabazlea: Aitor Bilbao \*

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo uk@aldizkaria.biz

Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



Freexkue liburua

www.argia.com



ANGEL FIDALGO POTXOLOK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Kakarraldo errugbi taldea, 1979

**Erdi urduliztarra erdi plentziarra** den talde hau 1979ko udaberrian sortu zuten, Bizkaiko Errugbi Federazioak antolatzen zuen Udaberi sarian parte hartzeko. Hasieran, Plentziako hondartzan entrenatzen zuten jokalariek, baina beranduago futbol zelai zaharrera pasatu ziren. 40 eta 50eko hamarkadetan Urdulizko futbol taldea izandakoagatik hartu zuten Kakarraldo izena, aurrekariak denboraldi bakarira irauin zuen arren.

Hain zuzen ere, orduan Getxo taldeko jokalaria zen Eduardo Fidalgo izan zen taldearen sortzaile eta bultzatzailea. Gainera, Urdulizkoa ez zen berak eratutako talde bakarra izan; besteak beste, Mungian eta Durangon ere taldeak sortu zituen eta. Ez da meritu makala! Erakundeek diru-laguntzak ukatu eta herritarrengana, tabernetara, dendetara... jo behar izan zuen laguntza eske (horiek ederto erantzun zutela esan beharra dago).

Derioko seminarioaren aurrean aterata dago argazkia (gaur egun Urdulizko Txiberri tabernan ikus daiteke), 1979ko irailean Bilbao Rugby Clubaren aurka jokatutako partida batean. m

**Zutunik:** Angel Fidalgo Potxolo, Angel Suances Seme, Tarzan, Josu Xabier Martinez Pibe, Iñaki Arrola Tato, Javier Baruren Potan, Ricardo Larrinaga Richar, Jose Luis Bilbao Paya (GB), Patxo Intxaurtieta, Luis Benito, Madariaga Madaris.

**Makurtuta:** Antxon Mendizabal (lehenengo entrenatzailea), Garcia Toxo Toxo, Eugenio Masa Novillo, Julen Unibaso Galdu, Eduardo Fidalgo Aldeano (2. entrenatzailea), Joserra Urrutikoetxea, Josu Butron Txirta, Pablo Ortiz Pabolo, Natxo Falagan, Angel Tokero.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

**XABIER LAPITZ** > Radio Euskadiko esataria

# “Nor bait hiltzeko kapaza naiz lanperna plater batengatik”

Testua: **Maitane Nerekan**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Kuxkuxeroa eta oldarkorregia.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Harridson Forden *Arka galduaren bila*. Pelikula alaia eta zirraragarria da, oso gustuko dut.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Mahatma Gandi, euli bat bera ere hil gabe inperio bat garaitu zuelako

**Ohitura txarren bat al daukazu?**

Lepoko zainak erraz puzten zaizkit haserre nagoenean. Asko kostatzen zait nire burua kontrolatzea.

**Aitor dezakezun bizio bat.**

Norbait hiltzeko kapaza naiz lanperna plater batengatik.

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?**

Indiara itzuli nahi nuke. Gure kulturaren oso ezberdina da hangoa. Asko dago ikasteko bertan.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Denbora libre asko edukitzea, ezagutzen ez ditudan munduko txokoak ezagutu ahal izateko.

**Ikusi duzun azken filma?**

*Babel*. Oso pelikula ona da. Kultur aniztasunaren gaia era hurbilean lantzen du, eta honek dituen alde onak erakusten dizkigu.

**Zer gabe ezin zaitezke bizi?**

Nire alabak gabe.

**Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?**

Nik uste dena barkatzeko kapaza naizela, baina bat esatekotan, traizioa.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna?**

Txingudiko badia erlaxatzeko eta Bilbo estresatzeko. m

**LABURREAN**— Hondarribian jaio zen Xabier Lapitz orain dela 40 urte. Nafarroako Unibertsitatean Kazetaritza ikasketak burutu ostean, SER irratian lan egin zuen. Denbora gutxian, Euskal Autonomi Erkidegoko informatibo burua izatera heldu zen. Honen ostean, ETBko *Elkartasun bideak* dokumental bilduma zuzendu zuen bi urtez. Hauetan, Eusko Jaurlaritzak Afrika, Asia eta Hego Amerikan aurrera eramandako kooperazio proiektuak erakusten ziren. 1998an DEIA egunkariko zuzendariorde izendatu zuten eta bertan egon zen bost urtez. 2001ean Radio Euskadin lanean hasi zen *El Altavoz* saioan. Gaur egun *Boulevard* saioko zuzendaria da.